


LEHIOR ELORRIAGA

Lehen nobela plazara

Miren Amuriza Plaza berriztarrak 'Basa' eleberria publikatu du apirilean. 2017an irabazitako Igartza Sariaren laguntzagaz argitaratu du bere lehenengo nobela dena. Sabina, 80 urteko andre basa, da istorioko protagonista; zaintzailea eta zaindua izateak sortzen dion gatazka azaleratzen du 'Basa'k. Sormen prozesuan, eleberria idazteak eta bertso txapelketarako prestatzeak antzekotasun batzuk eduki ditzaketela onartu du. • 2-3

Oihana Azkorbebeitiak distira egin du Japonian

Kirola | Japonian jokaturako Munduko Kopatik garai-pen bategaz eta zortzigarren postu bategaz itzuli da mendiko korrikalari abadiñarra. • 26



VKWC/VINCENT GUMY

San Prudentzio Jaiak 2019



Trofa-Mallena Abadino
San Prudentzio Jaiak 2019



IURRETA

Lanbide Heziketa

www.iurretalhi.eus
idazkaritza@iurretalhi.eus
Tel.: 944 66 88 00

ZIKLOAK

GOI MAILA

- Administrazio eta Finantzak
- Automozioa
- Mantentze Lan Elektronikoa
- Produzioaren Programazioa

Euskaraz ikasi eta lan egin!

AURREMATRIKULA
Ekainaren 3tik 14ra

ERDI MAILA

- Administrazio Kudeaketa
- Mekanizazioa
- Ibilgailuen Elektromekanika
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta
- Telekomunikazio Instalazioak

MATRIKULA
Uztailaren 11tik 17ra



“Pertsonaia ahalik eta modurik humanoenean ekarri gura nuen eta, aldi berean, animalienean”

'Basa' eleberria kaleratu du apirilean Miren Amuriza berriztarrak; helduentzat idatzi duen lehenengo lana da liburu hau

LITERATURA • ARITZ MALDONADO

2017an irabazitako Igartza Sariaren laguntzagaz kaleratu du lehen nobela Miren Amuriza Plazak (Berriz, 1990). Sabina izeneko emakumea du protagonista liburuak.

Nor da Sabina?

Liburuaren abiapuntua da. 80 bat urteko andrea, baserriko andrea. Izenburuaren bila nenbilenean, basandrea jarri nezakeela pentsatu nuen, edo antzerako zerbait, baina bereizketa hori egin gura nuen. Sabina andre basa bat da, ez basandrea. Horrela jarriz gero, baserriari eta lurrari lotuta dagoen matriarka baten figura idealizatzeko arriskua ikusten nuen, baita kutsu mitologiko eta jainkotiar bat emateko ere Euskal Herriko emakume baserri-tarrari. Neure burua ezagututa, arrisku handia ikusten nuen horretarako, eta nire helburua kontrako egitea zen. Ahalik eta modurik gordinean ekarri gura nuen pertsonaia, modurik humanoenean, eta, aldi berean, animalienean. Andre basa bat da Sabina.

Eta zer da basa, beraz?

Liburuaren sarreran bertan adiera biak azaltzen ditut, uste dudalako garrantzitsua dela irakurlea bera kokatzeko. Adiera biak ez dira, beharbada, hainbeste entzundakoak. Hemen inguruan, lokatzari deitzen diogu basa. Lokatza hainbat bider agertzen da istorioan zehar; baserrian izatera, batzuetan zikin dago, eta istorioa bera ere lokaztuta dago. Bestalde, basak izen moduan dituen adiera ugariak agertzen dira; domestikatu bakoa, animalientzat zein landareentzat basoan naturalki hazten dena... Izenburua pertsonaiaren izaeragaz lotzen dut, eta baita liburuan dagoen giroagaz ere. Sarreran hiztegiko definizioa jartzeak lotura du horregaz. Izan ere, irakurlea istoriora heltzen denerako, pertsonaiek bagaje bat dute, eta tentsio maila nahiko altu dago euren artean. Orduan, kokatze moduko bat da hori.

Zein da egoera hori?

Sabina baserrian bizi da, eta ezinduta eta ohean dagoen koinatu bat du bere kargu. Konfliktu bi agertzen dira hor. Alde batetik, Sabina zaintzailea dago, eta bere koinatuagaz dituen gatazkak. Zaintzailearen

rola aldatu egiten du, bere burua ahalduentzako: 'Ni zure ordutegien menpe nago, baina zu, ni gabe ez zara ezer, hor ustelduko zara', dio. Botere bilakatzen du zaintza hori.

Beste alde batetik, eta tramaren hasiera hor dago, Sabinari txikikeria bat dela-eta operazio bat egin behar diote, eta, bat-batean, bere seme-alabek zaindu egin gurako dute. Hor dator bigarren talka. Eta hor zaintzaren ikuspegi ezberdin bi ere ikusten dira. Telefonoz deitzea, bisitan joatea edo laguntza eskaintzea, funtsean seme-alabentzat ama zaintzea dena kontrola bilakatzen da Sabinarentzat. Horixe da abiapuntua. Konfliktu bi ditu, zaintzaile modura eta zaindutako pertsona modura.

Zerk eraman zaitu istorio hori kontatzera?

Zaintzarena oso gai aktuala da, zorionez, baina ez nuen zaintzari buruzko nobela bat idatzi gura gaia modan dagoelako. Pertsonaiak eta egoerak berak eraman naute horra. Zergatik? Ni ez naiz baserri-tarra, ezta gutxiago ere, baina baserri auzokoa bai. Aita eta ama, biak dira baserri-eroriak, nire amama biak baserriko andrak izan dira, eta ume-umetatik hainbat irudi oso presente eduki ditut, bere momentuan hor geratu zaizkidanak eta gerora agertu zaizkidanak: bai lehen eta bai orain, gure auzoan, etxean, etartean, bildotsak narrututa ikusi ditut gantxotik eskegita, odola dariola eta begiak irten-irtenda. *Pa pa pa* odol tantak egunkari gainera jausten, usaina... bildots horiek buruan grabatuta gelditu zitzaizkidan. Aitak izeko bat zuen, senargabea, Etxanoko baserri batean bakar-baka-

“**Txapelketan feedback-a momentuan jasotzen duzu; liburuagaz, oster, tantaka dator**”

rrik bizi zena, eta gogoan dut ume-tan hura bisitatzea joan, eta eskailera buruan aker baten burezurra zegoela. Edo zenbat bider ikusi ote dudan amama txakur biren arteko borrokan txakurrak banatzen. Beste edozein ikaratu egingo zen. Amamak eskuan zauri bat egin eta

“**Eleberri hau idaztean nekeza izan da, beharbada, nire izaeragatik, oso estu hartzen dut guztia**”

zaurian tiritu bat jarri beharrean, txakurrei ematen zien miakatzeko. Horixe da andre basa bat. Nik andre basa batzuk eduki ditut inguruan, eta bakoitzarengandik zati batzuk hartu eta pertsonaia edo ikuskera horretara ekarri ditut. Horrek eraman nau gero bere inguruko gatazka horiek saretzera, eta hor hartu du pisua zaintzak. Baina abiapuntua pertsonaia zen, eta gero etorri da bestea.

Mundu edo ikuskera baten amaieraren lekukotza da?

Titular moduan ondo geratzen da, mundu ikuskera baten azkena iradokitzen ari naizela, eta horrela dio liburuak ere kontrazalean, baina nire aldetik pretentzioa litzateke hori horrela egin gura izan dudala esatea, ez delako horrela izan. Nik pertsonaia bat ekarri dut, eta pertsonaia horren testuingurua hori da, eta hori islatzen saiatu naiz. Beharbada, asko ari da berba egiten baserriari buruz, testuingurua horixe delako. Baina ni seguru nago profil horretako beste hainbat kasutan ere basatasun hori konpartituko litzatekeela. Adibidez, 80 urteko emakumezko bat Extremaduratik Berrizera etorri zena, sei seme-alaba hazi dituenak hemen, eta lehen lerroan egon dena beti; testuingurua ezberdina izan arren, basatasun hori konpartituko du ziurrenik. Nik, oster, ez dut hori bizi izan, ez dut ezagutu. Sabina belaunaldi horren parte den heinean, angustia edo antsietate hori eduki edo adieraziko ditu [munduaren ikuskeraren amaierarena], baina

zeharka dator hori, helburua ez zelako hori adieraztea.

Idaztea bera 'apaltasun lezio' modura definitu zenuen liburuaren aurkezpenean. Zelako prozesua izan da?

Ez dut esango erraza izan denik. Uste nuen banekiela idazten. Zutateak idazten nituen, neure buruarentzat idatzi izan dut, ipuinak idatzi izan ditut... Nobela batean egin beharrekoa antzerakoa zela uste nuen, baina luzeago, eta ez da horrela, inondik ere. Ikasketa prozesua izan da, nik ez dut topatu inon 'nola idatzi nobela bat', eta, beraz, norberak sortu behar du bere gidaliburua. Topikotzar bat da, baina eginez, deseginez eta zure akatsetatik ikasiz egin behar da bide hori. Niretzat nekeza izan da, nire izaeragatik beharbada, oso estu hartzen dudalako dena. Argi nuen testua ahalik eta soilena izan behar zela, eta papereratzan nuena ahalik eta zehatzena izan behar zela. Hor, alde batetik, estutu egin dut neure burua. Bestela ere, bakardaderako joera dut, eta honetan are gehiago igarri dut. Idazten hasi nintzenetik lehen zirriborroa lagunei pasatu nien arte, hilabete dezente pasatu ziren. Eta horrela oso gaitza da perspektiba hartzea. Hurrengorako ikasi dut hori, hurbilketa-urrunketa ariketa hori. Hau frontenisean bakarrik jokatzea bezalakoa dela esaten nien lagunei, onerako eta txarrerako. Dena zugana dator bueltan beti. Eskerrak zortea dudala eta ekipoa izan dudala inguruan.

Jende askogaz partekatu dituzu zirriborroak?

Elkarreko editoreaz gainera, Uxue Alberdik eta Danele Sarriugartek asko lagundu didate, eta Oihana Bartrak eta Alaia Martinek ere bai.

“**Zaintzaren gaia oso aktuala da, zorionez; baina pertsonaiak eta testuinguruak eraman dute nobela horra**”

Idoia Barcelok ere asko lagundu dit. Behin testua osorik idatzi ostean, *feedback* eraikitzailea ematen eduki ditut, eta asko eskertu dut, Hor konturatu naiz ze gaitza den idazkuntzaren munduan sartzea. Bertso eskolagaz konparatu dut hori, nik hori ezagutzen dudalako. Bertso eskolan hasieratik daukazu nork eman *feedback*a, nork lagundu, eta, kasu honetan, zorte handia izan dut, nire lagun sarea honetan dabilelako eta iritzi pertinente bat nork eman eduki dudalako, baina beste jende askok ez du horrelako zortetik eta aukerarik mundu honetara hurbiltzeko, beharbada. **Behin liburuak kaleratuta, pozik geratu zara?** Egia esan, pozik ezin dut esan, oraindik oso urduri nagoelako. Ez dut berriro irakurri eta apenas



LENIOR ELORRIAGA



zabaldu dut liburua. Hau guztia berria da niretzat, eta antzerako esperientziekin baino ezin dut konparatu. Adibidez, bertso-lan txapelketekin. Txapelketaren aurretik aurrelanketa bat dago, eta abestu eta gero dator *feedback*. Horrelakoetan, momentuan jasotzen duzu, eta hemen ez. Tantaka-tantaka etorriko da. Oraindik lagunen iritzia baino ez dut jaso, eta horiek beti dira atseginak. Baina denetik egongo da. Ez dago guztien gustuko den sormen lanik. Honegaz, berdin. Batzuek gehiago enpatizatu dute egoeragaz, eta gehiago hurbilduko dira, eta beste batzuk ez. Beste batzuk hizkuntzagatik errazago sartuko dira istorioan. **Hizkuntzaren erregistroan, bertso-tik literaturarako jauzia nolakoa egin zaizu?**

Batez ere, hizkuntza mailan ditudan gabeziez ohartu naiz. Uste nuen banekiela idazten, eta uste nuen menperatzen nuela euskara, dezente, baina horma handi bat aurkitu dut parez pare. Askotan erdarara jo behar izan dut, gaztelaniara batez ere, euskarazko hitz bat topatzeko. Zergatik? Jarri gura nuena ahalik eta zehatzen jartzen saiatu naizelako. Basa, adibidez. Gaztelaniaz 'salvaje' esan edo 'silvestre' esan, ez du zerikusirik. Euskaraz adiera bi horiek eta gehiago hartzen ditu basak. Beraz, adjektiboekin, hainbat bider pasatu zait hori: zehaztasun maila baten bila joan eta erdaraz berba zehatzagoa eduki. Hor konturatu naiz arazoa ez dela hizkuntza, erabiltzailea baizik, kasu honetan ni. Bertso-tan, nik neuk ez dut bat-batean

prezizio maila horretara heltzeko gaitasuna, baina paperean idazteko ariketa bestelakoa da, eta ahalegina ere halakoa eskatu dit.

Baduzu beste nobelarik idazteko asmorik?

Betidantik idatzi izan dut. Beraz, jarraituko dut, seguru. Konturatu naiz nire zirkulantziak idea-

“**Topikotzar bat da, baina batzuek korrika eginez husten dituzte barrenak; nik ostera, idazten**”

lak zirela nobela bat idazteko. Oso ondo dago zaintzari buruzko manifestuak eta nobelak idaztea, baina nik ez dut inor nire kargupean, ez seme-alabarik, ez adinekorik, eta ekonomikoki neure burua mantentzeko gai naz. Nire inguruko jendea zailtasun askogaz ikusten dut, bertso-tarako, idazteko zein dena delakorako denbora harripetik ateratzen. Zentzu horretan, nik dena eduki dut aldeko, eta, hala ere, nekeza egin zait. Beraz, urte batzuk barru ikusiko dugu. Hala ere, gustatuko litzaidake bizimodua moldatzea, hau egiteko denbora tarte batzuk gordetzeko.

Plazan behar-rean, idazle moduan ikusten duzu zeure burua?

Egia esan, pasatu zait burutik, baina oso sentipen ezberdinak

sortzen dizkirate bertsoak eta idazteak. Plazakoa barrutik kanporakoa da, eta idaztea kanpotik barrurakoa. Gorputzaldi ezberdinak dira. Arratsaldea idazten pasatu ostean, saio bat edukitzeak txokea sortzen du. Gura? Jakina, baina ez dago nire esku. Plazara arautzen duten arauetako asko ez daude gure esku, eta literaturaren plazan beste horrenbeste izango dela suposatzen dut. Ez dut neure burua idazletzat. Nobela bat idatzi dut, eta, beraz, asko jota, idazle ibilbidearen lehenengo pausoa izan daiteke hau. Beste topikotzar bat da hau, baina batzuek korrika eginez husten dituzte barrenak; nik, ostera, idazten. Egunerokoa da niretzat, zein forma hartuko duen ez dakidan arren.

Durungaldean sortzen den hatsaren sorburua zein den argitzeko, ikerketa bat garatuko dute

Durango Udalak 50.000 euroko proiektu bat adjudikatu dio Tecnalia Research & Innovation fundazioari; datozen sei hileetan zehar, herritarrek sarri salatutako hatsaren kausa posibleen jatorria ezagutzeko da helburua

DURANGO • J.G. / M.O.

Udalak 50.000 euroko proiektu bat adjudikatu dio Tecnalia Research & Innovation fundazioari, Durungaldean sortzen den hatsaren iturria identifikatu eta hori gutxitzeko beharrezko ekintzak zehazteko datozen sei hileetan.

Ikerketa ez da soilik Durangon zentratuko. Durangaldeko inguru industrialean (Iurreta, Elorrio, Zaldirar, Abadiño, Atxondo, Berriz eta

ren kalitatea neurtzeko, eta dimetilsulfuro eta dimetildisulfuro osagaien mailak gaintitu izan direla egiaztatu du. Ikerlarien ustez, isurketa horiek paper-fabriketatik eta araztegietatik datoz, eta ez fundi-

zioetatik. Tecnaliaren proiektuak ikerketan sakonduko du.

Benzenoari neurriak

Jaurlaritzaren ikerketa martxoan kaleratu zen, eta Fumbarri eta Fun-

san enpresek benzenoa isurtzen zutela ondorioztatu zuen. Hila-beteko epea eman zuen neurriak ezartzeko, eta udalak horren inguruko informazioa eskatu du, epea amaitu denean.



Azken urteetan, airearen kalitateaz kezka agertu izan dute sarri herritarrek.

Dimetilsulfuro eta dimetildisulfuro osagaien mailak gaintitu direla egiaztatu du Jaurlaritzak

Mallabia) gertatzen diren egoera eta baldintzak ere jasoko ditu. Honela, herritarrek sarri salatutako hatsaren kausa posibleen jatorria argitzeko ahalegina egingo dute.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak ikerketa bat garatu du airea-

Pertsona nagusien segurtasuna landuko dute, istripuak saihesteko helburuz

DURANGO • M.O.

Stop Accidentes elkarteak eta Durango Udalak pertsona nagusien segurtasuna lantzeko kanpaina bat jarri dute martxan, istripuak saihesteko helburuz. Berbaldi bi eskainiko di-

Lehen berbaldia oinezkoiei zuzendutakoa izango da, apirilaren 30ean, 18:00etan

tuzte datozen egunetan. Lehen oinezkoiei zuzendutakoa izango da, apirilaren 30ean, 18:00etan, Adinekoen Udal Egoitzan. Bigarrena maiatzaren 8an egingo dute, 18:00etan, Pinondon. Kasu horretan, gidari direnei begirako informazioa emango dute, eta apuntatzea beharrezkoa dela esan dute, 94 465 74 51 telefonoan edota egoitzan bertan.

Berbaldi bietan adituek parte hartuko dute: irakasleek, psikopedagoek eta elkarteak kideek, esaterako.

Galdeketa onartu eta lau hilabetera, dataren berririk ez dagoela dio Erabakik

Legaldia amaitzen dabilela-eta, kontsultagaz zer gertatuko den galdetu du plataformak

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Urtarrilean onartu zuen udalak galdeketa antolatzeko prozesua hastea, eta lau hilaren ostean datarik barik jarraitzea kritikatu du Erabaki plataformak. Legaldia amaitzean den honetan, kontsultagaz zer gertatuko den galdetu du prentsa ohar bidez.

Gainera, Erabakiren iritziz, galdeketa prozesua ia zuzen hasi zitekeen, lehenengo sinadurak aurkezterakoan. Espai-



Erabakik deituta galdeketa egitea eskatzeko manifestazio jendetsua egin zen martxoan.

niako Gobernuari eskatu beharreko baimena ere urtarrilean tramitatu ahal zela diote, prozesua hasi zenean. "Sinadurak batzen genbiltzanetik salatu genuen EAJ eta PSE-EEren udal gobernuak ez zuela galdeketa egin gura eta, jazo diren gertakariak ikusita, arrazoia izan dugula esan dezakegu orain", esan dute oharrean.

Urtarrilean, galdeketa antolatzeko batzorde berezi bat ipini zuen martxan udalak, eta lehenengo batzarretan adituen testigantzak entzun dituzte. Adibidez, Basaurin galdeketa bat antolatu zutenena, aholku juridikoak batzeko asmoz. Hurrengo batzarra apirilaren 29an izango da, 18:00etan, eta Erabakik bertara joateko deialdia egin die herritarrei.

Auto klasikoien kontzentrazioagaz hasiko dituzte Herriak antolatutako jaiak

DURANGO • M.O.

Maiatzaren Lehenaren bueltan auzoko jaiak ospatzen dituzte Mataderoan, Aramotz auzunean eta inguruan hain zuzen ere. Herria auzo elkarteak antolatzen ditu jaiak, eta bihar hasiko dira ekintzak, auto klasikoien kontzentrazio bategaz. 11:00etan hasiko da autoen erakusketa hori, elkartearen taberna parean. Gainera, sariak ere emango dituzte. Ekintzek martitzenean eta eguaztenean edukiko dute segida.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2019ko apirilaren 26a
17. urtea - 760. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Markel Onaindia Txabarri.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala eta Karolina Suarez Borges.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga eta Nerea Azpiazu Beaskoetxea.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Mallabiko Berano Txiki auzoko jaiak ospatuko dituzte asteburuan

MALLABIA • J.D.

Berano Txiki auzoko jaiak bihar hasiko dituzte. Besteak beste, txopoa jasoko dute, 19:00etan. Domekakoa da egunik indar-suena. Goizean Mallabiko Gazte Alai dantza taldeak saioa eskainiko du eta umeentzako jolasak egongo dira. Arratsaldean, 17:30ean, *Kutxaka. Ipuinak eta marrazkiak* umeentzako ikuskizuna eskainiko dute. Ostean, hainbat jolas eta proba egongo dira; tartean, Agarrerako ostera denbora mugatuan.

Apatako plaza eraberritua aste amaierarako egongo da erabilgarri

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Apatako plazan lanak egiten dabilta, jolasgune ireki bat sortzeko asmoz. Lanak otsailerrako bukatzea aurreikusi zuten arren, aste honetan amaituko dute lehenengo fasea, eta herritarrentzat erabilgarri egongo da. Behin hau bukatuta, bigarren faserako diru partida onartuko dutela esan du David Cobos alkateak. Bigarren fasean, txirrista jarriko dute, besteak beste.

Platano arbolak Abadiñoko Ferialekuan mantentzearen aldeko 1.300 sinadura batu dituzte

Sinadurak biltzeaz gainera, auzotar taldea ingeniari bategaz jarri da harremanetan, txosten berri bat aurkezteko asmoagaz



Kartelak jarri dituzte Ferialekuan.

ABADIÑO • A.M.

Abadiñoko Udalak Ferialekuko platanondoak kentzeko erabakiaren aurrean, jarraitu egiten dute protestek. Ferialeku Plazan hainbat pankarta jartzeaz gainera, kartelak ere jarri dituzte platano arboletan. Izan ere, nabaria da erabakiak auzotarren artean eragin duen

Bizilagunek hainbat pankarta eta kartel jarri dituzte Ferialekuan, arbolak bertan uzteko eskatzeko

desadostasuna. Joan den apirilaren 17an, ia 1.300 sinadura entregatu zituzten udaletxean. Auzotar talde honen esanetan, "astakeria" bat da bertako platanondoak botatzea. Sinadurak udaletxean entregatzeaz gainera, abadiñar talde honek ingeniari baten zerbitzuak kontratatu ditu, "txosten tekniko berri bat aur-

kezteko. Hain zuzen ere, hurrengo pausoa txosten hori udaletxean entregatzea izango litzateke.

Beste bilera bat

Ferialekua eraldatzeko obrak hasi orduko, bilera bat egitea da herritar taldearen asmoa. Bertan, udalbatza, Imadeko (Abadiñoko Udalak Ferialekuko platanondoei buruzko txostena egiteko kontratatu duen enpresa) ingeniaria eta herritarrek kontratatu duten

Auzotarrek 950 euro ordaindu dituzte ingeniariak txosten berri bat idazteko udalerako

ingeniaria egotea eskatzen dute auzotar antolatuek. Herritarrek kontraturiko teknikaria Doctor-arbol enpresako ingeniari bat da, eta 950 euro ordainduko dizkiote bere zerbitzuengatik. "Enpresa ezagun bateko partaidea den ingeniaria kontratatu dugu eta herritarren artean ordainduko dugu lan hau egiteagatik aurkeztu diguten aurrekontua", adierazi dute ohar bidez. Aurrerantzean ekimen gehiago egingo dituztela eta emandako pausoen berri ere emango dutela aurreratu dute oharrean.

Irailaren 16an hasiko da Egoitz Lopez de Lacalle eta beste 46 euskal herritarren aurkako epaiketa

Besteak beste, fiskaltzak 12 urteko kartzela zigorra eskatzen du Lopez de Lacalle otxandiarrantzat

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

47 euskal herritar epaituko dituzte espainiar Auzitegi Nazionalen irailetik aurrera. Fiskaltzak 8 eta 20 urte bitarteko espetxe zigorrak eskatu ditu presoan abokatuen eta Herrira, Jaiki Hadi, Etixerat eta EPPKren (Euskal Preso Politikoen Kolektiboa) bitartekarien kontrako operazioekin lotuta auzipetu dituzten pertsona horientzat.

Tartean Egoitz Lopez de Lacalle otxandierra dago. Fiskaltzak 12 urteko kartzela zigorra eskatzen du berarentzat. Erakunde terrorista bateko parte aktibo izatea leporatzen diote.

2014an atxilotu zuten

Lopez de Lacalle 2014 hasieran atxilotu zuten, beste zazpi pertsonagaz

batera, EPPKren mintzakidetzat taldearen aurkako operazioan. Horren ostean, 2015eko martxo hasieran irten zen kartzelatik, ezarritako fidantza ordainduta.

2015eko martxoan aske geratu zen, fidantza ordainduta; harrezkero, epaiketaren zain egon da

Harrezkero, behin-behinean aske utzi eta epaiketaren zain egon da. Orain iragarri dutenez, 11/13 sumarioaren barruko epaiketa hori aurtengo irailaren 16an hasiko da eta hiru bat hilabete iraungo duela aurreikusten dute.



Presoen eskubideen aldeko mugimenduak urtarrilean Durangon eginiko mobilizazioa.

Mecar enpresari neurriak hartzeko eskatu dio LABek sententziaren ostean

ZALDIBAR • JONE GUENETXEA

2018ko urtarrilean, Zaldibarko Mecanizados Mecar enpresako LABeko ordezkari batek eraso sexista salatzen zuen. Orain, Durangoko epaitegiak falta arinengatik kondenatu du Mecar enpresako LABeko delegatuari eraso egin zion langilea. Sindikatu abertzalearen arabera, bere kideari emakume izateagatik eta lan sindikala egiteagatik egin zioten eraso, eta epaitegiak arrazoa eman dio. 180 euroko isuna ordaindu beharko du akusatua, gainera. Mecar enpresari neurriak hartzeko eskatu dio LABek. "Erasoa gertatu zenetik eta gaur arte, Mecarreko zuzendaritzak ez du ezer egin. Enpresa erasotzaileez libre egoteko, erasotzailea kalera-tzea exijitzen diogu, eraso jasan duena babesteko".

Aniztasun funtzionala duten zornotzar gazteentzako laguntzak

Tratamendua ordaintzen laguntzea da helburua; Zornotzan erroldatuta dauden adingabeek eskatu ditzakete

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Zornotzako Udalak epea hasi du aniztasun funtzionala duten adingabeen tratamendu eta programe-tarako diru-laguntza eskatzeko. "Desgaitasunarengatik jaso beharreko tratamendua ordaintzen

Azken hamabi hilabeteetan Zornotzan erroldatuta dauden eta aniztasun funtzionala duten adingabeek jaso ahal izango dituzte udaleko diru-laguntza hauek, irabazi asmorik gabeko erakunde batean tratamendua jasotzen badute.

Tratamendua irabazi asmorik gabeko erakundeetan jasotzea da baldintza bat

35.000 euro urtero

Jakinarazi dutenez, Zornotzako Udalak urtero 35.000 euro bideratuko ditu asmo honetarako. Dagoeneko hasita dago diru-laguntzetarako eskariak aurkezteko epea, azaroaren 30era arte. Udaleko erregistroan egin daiteke eskaria.

laguntzeko emango dira laguntzak", azaldu dute udal arduradunek ohar batean.



Aterpe berrian umeentzako aisialdirako materiala jarriko dute, besteak beste.

Asteon amaitu dituzte Mañariko kirolguneko aterpea egiteko lanak

Frontoi barruko geletako batean gimnasia aparatua ipiniko dituzte, besteak beste

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Mañariko kirolgune berriko lanak aurrera doaz. Hainbat hilabete lanen ostean, asteon amaitu dituzte azpiegitura nagusiak: kanpoaldeko egurrezko aterpea eta azpiko zorua, batetik, eta frontoiko lehen solairuko gela berriak, bestetik.

Lanak "arazorik barik eta normaltasunez" aurrera eraman direla azaldu du Endika Jaio alkateak.

Espazio berri bakoitza material egokiagaz hornitzea izango da hurrengo urratsa. Frontoi barruko geletako batean gimnasia aparatua jarriko dituzte. Horiek erosita dau-

Lanak "arazorik barik eta normaltasunez" joan direla aurrera adierazi du Endika Jaio alkateak

de dagoeneko. Izan ere, bigarren eskuko ariketa aparatu batzuk prezio onean eskuratzeko aukera sortu zitzaion udalari, eta aprobe-tzatzea erabaki zuten. Goiko gaine-rako gelak zegaz hornitu jakiteko, herrian gimnasia klaseak ematen

dituen enpresagaz hartu-emane-tan jarri dira. Euren proposamena laster jasoko dutela adierazi du Jaio alkateak, eta txosten hori oinarri moduan erabiliko dute materiala erosteko.

Iraileko prest

Gela bakoitzera bideratuko duten diru kopurua erabakita dago. Herri-za baldutako bozketa baten bidez erabaki zuten, otsailean. Gelak hornitu ostean, kirol programazio eguneratua irailan hastea da udalaren helburua, ikasturte berriagaz batera.



Udaleko erregistroan egin daitezke laguntza eskaerak.



Musika eta dantza Oromiño San Marko jaietan

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Jai giroan pasatuko dute asteburua Oromiño auzoan, San Markoen eskutik. Txinan giro-tako mozorro afaria dute gaur, eta, biharko, tortilla txapelketa antolatu dute. Aurretik, Maiztegi eskolako umeen dantza saioa ere egongo da. Gaua, bestalde, Takitto taldeak girotuko du.

Domekarako, kantu bazkaria antolatu dute, eta *Artantxuriketan* ikuskizunerako aukera ere egongo da. Goizean dantzariak eta trikitilariak arituko dira.

Berrizko Udalak lehiaketa publikora atera du adinekoen zentroko taberna

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrizko Udalak lehiaketa publikora atera ditu adinekoen zentroko tabernaren ustiapena eta instalazioaren garbiketa. Lehiaketako baldintzen ple-gua udalaren webgunean dago ikusgai, eta interesa dutenek maiatzaren 3ra arte aurkeztu ahalko dituzte euren eskaintzak, udaletxean.

Berrizko Udalak ezarritako baldintzen arabera, lehiaketa publikoa irabazten duen esleipendunak bi urtez hartuko du tabernaren ardura, eta esleipena beste bi urtez luzatzeko aukera egongo da.

Bestalde, adinekoen zentroko tabernaren esleipendunak udalari urtero 600 euroko kano-na ordaindu beharko diola jakitera eman dute.

Maku Florentino eta Diana Pardo, Mendebaldeko Sahararik kanporatuta

Marokok kanporatu egin zituen Aaiunera astebete pasatzera joan ziren bi euskal ekintzaileak



Ezkerretik hasita, Diana Pardo eta Maku Florentino. (Equipe Media).

ELORRIO • J.D./M.Z.

Maku Florentino elorriarra eta Diana Pardo Aaiunera joan ziren apiril hasieran, astebete pasatzera. Baina Marokok Mendebaldeko Sahararik kanporatu zituen. Florentinok ANBOTOri azaldu zionez, "presio handia" sufritu zuten bidaia osoan zehar. "Hiria ezagutzen ibili ginen egunetan ere presioa izan genuen", esan du elorriarrak.

Apirilaren 11n lagun batzuekin bildu ziren Florentino eta Pardo. 21:30ean, Marokoko polizia lagun horien etxera sartu eta bi euskal ekintzaileak atera egin zituen handik. "Ez ginela ongietorriak esan ziguten, eta ekintzaileekin bilera bat egiten ari ginela", azaldu du Florentinok. Euskaldunak kotxean sartzean Saharako lagunak jipoitu egin zituztela azaldu du. Elorriarra kezkatuta agertu da Saharako lagunengatik. "Gu ondo gaude. Hegazkina hartu eta etxera itzuli ginen, baina haiek han daude. Asko kezkatzen nau han gertatzen denak. Kanporatu egiten gaituzte, han ez dutelako inor gura", esan du.

Lantziegoko herritarren bisita jasoko dute Garain, senidetza ospatzeko

GARAI • M.O.

Urteetako hartu-emana eduki ostean, 2013az geroztik ofizialki senide dira Garai eta Lantziego (Araba) herriak. Lotura hori ospatzeko, bisitak trukatzeko ohitura hartu dute, eta aurten lantziegarrak izango dira bisitan etorriko direnak, maiatzaren 4an. 14:30ean bazkaria egingo dute pilotalekuan, eta, ostean, DJ batek girotuko du arratsaldea. Bazkarira apuntatzeko, udaletxera deitu behar da; hilaren 29a da azken eguna.

Izen-ematea hasi dute Albaola faktoria bisitatzera joateko

IZURTZA • J.D.

Nagusien elkarteak antolatuta, ekainaren 2an Pasai San Pedrora joango dira. Goizean Albaola faktoria bisitatu dute. Gero, bazkaritara batuko dira. Izena emateko azken eguna maiatzaren 18a da, udaletxean.

Zornotzako bidesaria kentzea eta 24 orduren barruko joan-etorriak doako bihurtzea eskatu dute

AP-8 autobiderako proposatutako neurriekin, N-634 errepidean trafikoa murriztu ahalko litzatekeela uste dute

DURANGALDEA • M.Z. / M.O.

Inguruan bizi direnentzat eta bertatik pasatzen direnentzat, N-634 errepideko trafikoa "drama" bat dela dio AP-8 Peajerik Ez plataformak. "Bizilagunak, ziklistak, oinezkoak eta gidariak nazkatuta gaude era horretan gutxiesten gaituztelako", adierazi dute taldekoek, agintariei zuzenduta. AP-8 autobidea doakoa izan beharko litzatekeela uste dute, horrek N-634an "trafikoa murriztea ekarriko lukeelako". Hala ere, bitarteko neurri bi proposatu dituzte "administrazioagaz jarrerak hurbiltzeko" asmoz: Zornotzako bidesaria kentzea eta 24 orduren barruan egiten diren joan-etorriak doakoak izatea.

Eskari horietan oinarritutako sinadura bilketa bat hasi dute Interneteko *change.org* atarian, eta

Eskari horietan oinarritutako sinadura bilketa bat hasi dute 'change.org' atarian

dagoeneko 800 bat lagunek agertu dute euren babesa. Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundieiei eta autobidea gestionatzen duten Interbiak eta Bidegi enpresei helarazi dizkiete eskaerak. Orain hiru urte ere autobidea doako bihurtzearen

aldeko 12.600 sinadura batu zituzten.

Plataformaren arabera, Iurretatik Zornotzara bidean bizi diren auzokideen "segurtasuna eta lasaitasuna" hobetuko lirarteke neurri horiekin. Azaldu dute 24 orduko

joan-etorrien doakotasunaren antzeko neurri bat Nafarroan eta Errioxan ere ezarri dela dagoeneko. Zornotzako bidesaria kenduta, Bediako, Lemoako, Usansoloko eta Erletxeko trafikoa ere igarriko litzatekeela begitantzen zaie.



AP-8 Peajerik Ez plataformak 2016an ere egin zuen sinadura bilketa. Irudian, Abadiñon ipinitako mahaiagaz.

AURREMatrikula
ZABALIK
BATXILERGOA
2019-2020

Maiatzaren
2tik 14ra

ZATOZ
GUGANA
IZENA
EMATERA



jesu
Jesuitak

Durango

Biharko ametsak, gaurko erronkak



94 681 00 50

sanjose@durangojesuitak.org
www.informazaitetz.eus/ateirekiak

Korrika eta euskara bizitzeko mila modu, aldarri bakarrean batuta

Lander Loizate garaitarrak karabana batean egin zuen Korrikaren ibilbidea Euskal Herrian



Ezkerretik hasita, Dj Bull, Urkia, Igoa eta Loizate, euren lagun batez.

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Apirilaren 13an eta 14 goizaldean pasatu zen 21. Korrika Durangalde-tik, euskararen alde klika egiteko mezua zabaltzen. Aldarri horrek euskaltzale guztiak batu zituen, bakoitzak Korrika eta euskara bizitzeko modu berezia eduki arren (argazki guztiak *anboto.org* atarian daude ikusgai).

Korrika bizitzeko ekimen berezietako baten partaide izan zen Lander Loizate garaitarra. Beste hiru lagunegaz batera, karabana zahar batean egin zuen ibilbidea Euskal Herritik, Korrikaren atzetik joanda eta herrietan geldialdiak eginda. Taldekide bat Jon Gurr-

txaga (Dj Bull) zen, eta, beraz, ez zen jai girorik falta. Geldialdietako bat Garain egin zuten; bertan egindako Korrika Txikian parte hartu zuten, eta, horren ostean, DJ Bullek musika ipini zuen. "Polita izan zen, Korrika sekula ere ez delako Garaitik pasatu. Hurrengo batean herritik pasatzeko eskaera egitekotan gaude", azaldu du Loizatek.

Loizatek eta Igoak mantentze-lanetan lagundu zuten Korrikako furgonetek behar zutenean

Loizate eta Gurrutxagagaz batera, Mikel Urkia *Matu*-k eta Jose Javier Igoak osatu zuten laukotea. Urkiak Korrikaren hainbat ediziotan parte hartu du antolakuntzan, baina gaixotasun baten eraginez, aurten era lasaiagoan bizi behar izan du. Eta hortik sortu zen karabanaren ideia. *Karru-Matu* izena ipini zioten.

Loizatek eta Igoak mantentze-lanetan lagundu dute, Korrikako furgonetek behar izan dutenean. Garaitarrak dio "esperientzia itzela" izan dela, eta Nafarroan bizitako nabarmentzen du. "Tuteran, Kaparrosan... euskaldunak benetako militanteak dira", adierazi du.



Plateruena, Barbaro eta Anboto, lekukoa eramaten Durangon. ANTON IZAGIRRE



Geu Beko kideak, pozez gainezka Durangon. ANTON IZAGIRRE



Zornotzara jende ugari heldu zen, eta herrigunean askoz ere gehiago batu ziren. ANTON IZAGIRRE



Mallabitik sartu zen Korrika, arratsalde hasieran.



Elorri feministek lekukoa hartu zutenean. ANTON IZAGIRRE



Otxandiotik gaez pasatu zen Korrika.



1967an sortu zen Fray Juan de Zumarraga institutua. Ikasturte honetan, beraz, 50. urteurrena ospatzen ari gara. Ospakizuna gogoratzeko, zenbait ekimen egin ditugu, eta, INSTITUTUA JAKINA! Aspaldiko lema berretsi dugu. Kurtso osoan zehar gura genuke efemeride hori gogoan izan, eta, horrela, eskertu Durangaldean kalitatezko hezkuntza publiko, euskaldun, kritiko, sortzaile, parte-hartzaile eta oso bat sortzen jardun duzuen guraso, ikasle, irakasle eta bestelako langile askoren lana.



Abiapuntu ezberdinetatik, helmugara jotzen dugu.

tziak, Giza eta Gizarte Zientziak, Artistikoa eta Musikala), Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleei arreta emateko gelak (Gela Egonkorak eta Zereginak Ikasteko Gelak) eta Kirol Jardueren arloko Erdi Mailako eta Goi Mailako Heziketa Zikloak.

Orientazio departamentuak berebiziko garrantzia du gure ikastetxean, bi orientatzaile

ditugu-eta; bata derrigorrezko hezkuntza etaparako (DBH eta GE), eta bestea derrigorrezkoaren ondorengorako (Batxilergoa, ZIG eta Zikloak). Hauek, tutore eta irakasle taldearekin batera, ikaslearen jarraipen zehatza egin, eta honen ibilbidea bideratzeko laguntza ematen dute.

Era berean, asko dira abian



Urteak pasa eta gero....



Denok elkartzen gara.

HEZKUNTZA ESKAINTZA

Durangoko institutua heziketa osoko ikastetxe publikoa da, euskalduna eta eleaniztuna. Gure helburu nagusia ikasleengan euren garapen pertsonalerako eta gizarteratzeko beharrezko kompetentzien lorpena sustatzea da.

Fray Juan de Zumarraga-Durango BHI ikastetxea Durangaldeko bigarren hezkuntzan

ereduzko zentroa da, bai duen ikasle kopuruagatik, eta baita 50 urteko esperientzia duelako ere.

Gure hezkuntza eskaintza zabala eta askotarikoa da: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (Landako eta Zabalarra Lehen Hezkuntzako eskoletako ikasleak biltzen ditugularik), Batxilergoko lau modalitate (Zien-

ditugun proiektuak: DBHko etapan aniztasunaren trataerari lotutakoak (HBSP, HIPI, Bidelaguna, CA taldeak...), Sare Hezkuntza Gelan (IKT baliabideen inplementazioa gelan), HNP (euskara eta euskal kultura sustatzen ditugu), Eleaniztasuna (hainbat jakintzagai ingelesez edo frantsesez egiteko aukera eskainiz), Hezkidetzeta-Elkar-

bizitza, EA21... ACEX proiektuaren barruan Liburutegiko zerbitzua eskaintzen dugu eskola ordutegi barruan eta baita ordutegitik kanpo ere.


Hauteskundeak

EAJk Zornotzan elkartu ditu Kongresurako hautagaiak mitinean

Esteban: "Arrazoi asko ditugu Madrilera joateko euskal interesak defendatzera"

EAJ • M.O.

Domekan izango dira Espainiako gorteetarako hauteskundeak, eta EAJren Bizkaiko zerrendan Aitor Esteban eta Idoia Sagastizabal doaz lehen postu bietan Kongresurako. Zornotzan egin zuten kanpainako ekitaldietako bat. "Arrazoi asko ditugu Madrilera joateko euskal interesak defendatzera", nabarmendu zuen Estebanek. Horien artean, "gardentasuna eta oroimen historikoari zor zaion errespetua" aipatu zituen hautagaiak. Espainiako Gobernuak Sekretu Ofizialen lege frankistan oinarrituta agiri batzuk sekretutzat jotzea "sasiko erregimenetako" dela uste du.

Sagastizabalek PP, VOX eta Ciudadanos alderdiak hartu zituen ahotan, azken egunotako istiluen harira: "Horientzat Euskadi ez da lehentasuna eta ez dituzte Euskadiren interesak mahai gainean jarriko". Horrega-

tik, esan zuen "ezinbestekoa" dela Madrilen "euskal talde indartsua" egotea.

Andoni Ortuzar Euskadi Buru Batzarreko presidentea ere egon zen Zornotzako mitinean. "Apirilaren 28az geroztik EAJk ezer

Ortuzar: "EAJk ezer erabakitze indarra badu, eskumako alderdiek oposizioan jarraituko dute"

erabakitze indarra badu, eskumako hiru alderdi horiek orain arte bezala jarraituko dute, oposizioan", adierazi zuen Sagastizabalen haritik jarraituta. Euskal Herria joko politikorako erabiltzea egotzi zien. "Baina, euskal emakume eta gizonok zaplazteko ederra emango diegu apirilaren 28an".



Elorrioko EH Bilduren zerrenda osatzen dutenak, talde argazkian.



Abadiñon jendaurreko aurkezpen ekitaldia egin zuen EH Bilduk.



Zornotzan ere ekitaldi zabala egin zuen EH Bilduk zerrenda auzetako.

Elorrioko, Abadiñoko eta Zornotzako zerrendak aurkeztu ditu EH Bilduk

Durangoko auzo bakoitzak zinegotzi arduradun bat izatea proposatu du

EH BILDU • M.Z. / J.G. / M.O.

Elorrioko EH Bilduk hainbat aurpegi berri dakartza zerrendan, eta egungo taldetik Idoia Buruaga alkateak eta Dani Palaciosek errepikatuko dute. "Lau urte hauetan erakutsi dugu badakigula Elorrio kudeatzen, eta gauzak beste era batera egin daitezkeela, hurbiltasun eta parte-hartzetik", esan dute.

Abadiñon, Mikel Urrutia alkategaiari laguntzeko zerrenda "anitz, esperientzia-

duna eta beharrezanean erantzutetako" osatu dutela diote. Zornotzan, udal gobernu "aldaketara eramatea" da koalizioaren helburua, eta lehenengoz programa herritarrekin batera osatu dutela nabarmendu dute.

Durangon, EH Bilduk bost neurri proposatu ditu "udala gertuko, gardena eta herritarrena" izateko. Adibidez, auzo bakoitzak zinegotzi arduradun bat izatea proposatu du.

VOXek hautagai zerrenda osatu du Durangoko udal hauteskundeetarako

VOX • M.O.

Bizkaiko Boletín Ofizialean udal hauteskundeetara aurkeztutako zerrenden informazioa publikatu zen eguaztenez, eta azkenaldian zurrumurrua zena baieztatu da: VOX alderdi ultrasukuindarrak hautagaitza osatu du Durangon lehiazteko. Luis Fernando Mancebo Santos izango da zerrendaburua.

Bestalde, PPK ere aukeratu du alketagaia, boletinean agertzen denez. Aiala Eguluz Rodriguez izango da.

Elkarrekin Podemos alderdiak salatu du bere propaganda esparrua okupatu duela VOXek Durangon

Espainiako gorteetarako hauteskunde paneletan gertatutakoaren berri eman dute



Aipatutako paneletako batzuk, Frai Juan Zumarraga kalean.

DURANGALDEA • J.G. / M.O.

Hauteskundeetan propaganda egiteko erabiltzen diren paneletan VOXek esparrua okupatu diola salatu du Elkarrekin Podemosek. Prentsa oharra bidali du, eta hauteskunde batzordean ere salaketa ipini du Durangoko Ahal Duguko idazkariak, Patxi Lopez Lakuntzak.

Joan zen zapatuan egin zuen salaketa Elkarrekin Podemosek. Berari dagozkion paneletan VOXen kartelak agertu ziren, Landakoko, San Rokeko eta Frai Juan Zumarragako eremuetan.

Bestalde, Equo-Berdeak, Ezker Anitzak, EBK, Podemosek eta independenteek Elkarrekin Podemos Amorebieta koalizioa sortu dute udal hauteskundeetarako. Maiatzaren 4an aurkeztuko dute zerrenda.



Txapeldunei ohorezko pasilloa egiten. C.D.Berriz, un trozo de historia liburutik.

Hareek denporak!

20 urte Berrizko neskak liga txapeldun geratu zirenetik

Berrizek gaur egun ez du emakumeen futbol talderik nagusietan, baina sasoi batean izan zuen eta talde hark hainbat lortu eskuratu zituen. Esaterako, orain 20 urte, 1998/1999 denboraldian, ligako txapeldun geratu zen. Ligako azken partidura arte itxaron behar izan zuen erregional mailako liga irabazteko.

Talde gaztea zen, 1994/1995 denboraldian sortua. Beraz, bost urte bakarrik zeramatzan Bizkaiko ligan. Txapeldun geratu

ostean, Berrizburun ohorezko pasilloa egin zieten gizonen partidu batean.

Gainera, urte esanguratsu batean lortu zuten igoera: Berriz Kirol Klubak zilarrezko ezteiak -25 urte- ospatzen zituen denboraldian. Klubak hainbat ekitaldi prestatu zituen urtean zehar urteurrena ospatzeko: Klubeko jokalariei ohien futbol partidu bi eta Athletic eta Eibar taldeen arteko norgehiagoka, besteak beste.

Durangaldea asteen

Jokabidearen nahasteei buruzko jarduerak antolatu dituzte maiatzerako

Durango | Jokabidearen nahasteei buruzko prestakuntza jarduerak antolatu dituzte Durangaldeko Amankomunazgoak eta Durangoko Udalak maiatzerako, Zaindu zerbitzuaren barruan. Mendekotasuna duten adinekoen senide zaintzaileei laguntza eta orientabidea ematea du helburu, zaintza zeregin konplexua dela jakinik. Jokabidearen nahasteak zer diren, zein egoeratan ematen diren eta nola murriztu daitezkeen landuko dute. Izena emateko: zaindu.mdurango@bizkaia.org /94 620 05 46.

Herriko merkataritza bultzatzeko, 18.000 euro jarriko ditu udalak

Abadiño | Udalak eta Abadiñoko Merkataritza Elkarteak (AME) lankidetzaren hitzarmena sinatu dute herriko merkataritza bultzatzeko. Aurten 18.000 euro erabiliko dituzte helburu horregaz. Besteak beste, Tokiko Komertzioaren Jaia eta Black Friday antolatzeke 9.500 euro jasoko ditu AMEk —urtero jasoko dute diru hori—. Horrez gain, formakuntzarako (3.500 euro) eta erosketak-bonu kanpainarako (5.000 euro) ere izango dituzte diru-laguntzak.

Egun batez zientzialari izateko aukera eskainiko du Urkiolako Parke Naturalak

Abadiño | Hegaztien inguruko herritar zientzia ekintza antolatu dute Urkiolako Parke Naturaleko arduradunek datorren maiatzaren 5erako. Egun batez zientzialari izateko aukera eskaini gura dute horrela, azaldu dutenez. Parte hartu gura duenak mezua bidali dezake urkiola.parke.naturala@bizkaia.eus helbide elektronikora edo, bestela, 94 681 41 55 telefonora deitu dezake.



Astolako aisialdi guneko zaborra norbaitek "gurata" botatzen duela diote Abadiñoko udaltzainek

Abadiño | Azken hilabeteetan Astolako erretegiaren inguruan zikinkeriaz beteta egon da asteburu goizetan. Egoera horren aurrean, Jose Luis Navarro Abadiñoko alkateak leku horretan gertatzen ari dena ikertzeko

agindu diela azaldu dute udaltzainek. Bada, ondorio argia atara dute. Iluntzean erretegiaren egon den jendeak zaborrontzira botatako zikinkeria hurrengo goizean lurrean barreiatuta aurkitzen dute. Zikinkeria hori

"gurata" botatzen dutela diote udaltzainek. Joan zen asteburuan, esaterako, zikinkeria zaborrontzietan zegoen zapatuan. Domeka goizean, ostera, zaborrontziak hutsik zeuden eta zikinkeria lurrean, zabal-zabal.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



Aurrematrikula
maiatzaren 2tik 14ra

Olaburu 3 - IURRETA

Tel.: 94 428 80 00


www.orobiogoitiabhi.hezkuntza.net

JUAN OROBIOGOITIA BHI

Batxilergoko modalitateak D erudian

- Zientzia eta teknologia.
- Giza eta Gizarte Zientziak.

- Euskarazko doako kalitatezko hezkuntza.
- Orientazio akademiko-profesionala.
- Guraso, ikasle eta langile guztien partaidetza.
- Teknologia berrien aldeko apustua.





IURRETA *Tellitu-n*

3 logelatako 6 etxebizitza

2 logelatako 11 etxebizitza

Garajea eta trastelekua barne

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

JAIIAK!

ABADIÑO
SAN PRUDENTZIO
2019KO APIRILA



Traña-Matiena
Abadiño

San Prudentzio Jaiak
2019

Lorategia & Terraza



EROSKI

Jai zoriotsuak opa
dizkizuegu abadiñar guztioi!



EROSKI
Abadiño zurekin

San Prudentzio jaiak 2019

Apirilak 27, zapatua

Donien Atxa eta Mozorro Eguna. Egun osoan, mozorro photocall-a Traña plazan.

10:00 Kuadrilla guztien bilera Traña zubian Donien Atxa ekartzeko.

12:00 Donien Atxa jasotzea. Giroa alaitzen, Ardoa Barrura fanfarea, Iluntze taldearen dantza saioa, eta urteko lagun ospetsua saritzeko ekitaldia.

13:30 Txupinazoa txosnen gunean, Katalamixon taldearen eskutik.

13:30 BELDUR BARIK GUNEA. Traña plazan.

14:30 Maleta siku eta Food Trucks Traña plazan.

Txartelak salgai Errota Kultur Etxean. Erosteke azken eguna: apirilak 26.

Prezioa: 1€. Euria bada, frontoian. Jai batzordeak ogia eta postrea bananduko ditu.

17:30 Kuadrillen arteko jokoak Traña plazan.

18:00 Mozorro kalejira parte hartuko duten taldeen argazki ofiziala Traña plazan.

19:00 Mozorro kalejira Irulitxa fanfarreak alaituta, Trañabarren kalean.

21:30 Kalejira Perculights! taldeagaz.

23:00 Jaialdia Traña plazan: Garilak 26

Apirilak 28, domeka

11:00-13:30 Umeendako jolasak Traña plazan.

11:00 Txanbolin taldeko txistularien kalejira.

12:30 Bertso triki-poteoa.

12:45 Kontzertua elizan, Jaizale Durangaldeko txistularien elkartegaz.

16:00 Tute txapelketa Barnebidetxean.

16:30 Ginkana Traña plazan.

17:00-19:00 Umeendako jolasak Traña plazan.

18:00 Show cooking eta Txiki Txef Zigor Iturrietagaz Traña plazan.

Apirilak 30, martitzena

17:00 Eskularen tailerrak Galizia Plaza.

18:30 Haur animazioa Galizia Plaza: Txikifesta Show.

'El txou de Patxi', Gorka Aguinagaldereen monologoa Errota Kultur Etxean*. Lehen Saioa.

20:00 Kontzertu akustikoa Traña plazan: BSB Txosna Batzordeak antolatua.

20:30 'El txou de Patxi,' Gorka Aguinagaldereen monologoa. Errota Kultur Etxean

Sarrera beharko da sartzeko, eta sarrerak apirilaren 8tik aurrera egongo dira salgai Errota Kultur Etxean.

22:15 Su artifizialak. Tren geltokiaren ondoan.

23:00 Kontzertua Traña plazan: Gozategi

Maiatzak 1, eguztena

Goizean, Geu Be taldeak txahal bat erreko du Traña plazan.

10:00 Nekazari azoka Traña plazan. Euria bada, merkatu plazan.

11:00 Txanbolin taldeko txistularien kalejira. Pilota tailerrak frontoian.

12:00 Herri kirolak Traña plazan.

16:00 Mus txapelketa merkatu plazan, Pipo's tabernak antolatua.

17:00 San Prudentzio pilota txapelketako finala.

18:00 Ohlimpiadas familia ikuskizuna (Cia. Sincronizadas). Traña plazan.

Maiatzak 3, barikua

16:45 Txiki merienda merkatu plazan.

17:15 'Eskobien atzetik' familia ikuskizuna (Barré Compañía taldea) merkatu plazan.

18:30 Diskofesta: Xaibor merkatu plazan.

21:00 Parrilada Traña plazan.

22:00 Bertso saioa Errota Kultur Etxean. Bertsolariak: Oihana Iguaran, Andoni Egaña, Txaber Altube eta Aitor Bizkarra. Gai jartzailea: Igor Galarza. Gonbitea beharko da sartzeko. apirilaren 8tik aurrera egongo dira eskura, Errota Kultur Etxean (gehienez 2 sarrera pertsonako).

22:30 DJ Dema Traña plazan: Dj Alus vs Dj Wimis

Txosna Batzordeak antolatua: Karaokea

Maiatzak 4, zapatua

Goizean, paella txapelketa merkatu plazan.

12:00 Mahai-ingurua Traña plazan: Errefuxiatuak. Traña-Matienako gazteek antolatua.

12:30 Iluntze taldearen dantza ekitaldia.

14:30 Txupinazoa eta herri bazkaria Traña plazan. Traña-Matienako gazteek antolatuta.

16:00 Ugasixo txapelketa merkatu plazan.

17:00 Kontzertua merkatu plazan: Mariachi Azteca de Flor Fernández.

17:00 Gazte Eguneko jokoak Traña plazan.

17:30 Izena ematea tortilla txapelketan, merkatu plazan.

19:00 Kalejira ElektroTxufla taldeagaz. Txosna batzordeak antolatuta.

22:30 Kontzertua Traña plazan: La Basu

Ondoren, play back lehiaketa eta kontzertua The Riff Truckers taldeagaz.

23:00 Jaialdia Trañabarren etorbidean:

Patrulla Canina

Onda Futura

Maiatzak 5, domeka

13:00 Done Zezili abesbatza eta The Golden Binder taldearen erakustaldia Errota Kultur Etxean.

Gonbitea beharko da sartzeko. apirilaren 8tik aurrera egongo dira eskuragarri, Errota Kultur Etxean (gehienez 2 sarrera pertsonako). Aretu-futbol triangeluarra.

13:00 Perretxiko pintxoaren dastaketa Pinoko plazan.

14:00 Jubilatuen bazkaria.

17:00 Jaialdia Traña plazan: Belle & Blue.

20:00 Donien Atxa kentzea.



federópticos
Apraiz

ONDO PASA JAIETAN!

Trañabarren 13, behea (Abadiño) - www.federopticasapraiz.com/es



ELORRIAGA KIROLAK

ABADIÑO, TRAÑABARREN 13, 1 MULTZOA.BEHEA. • Tel.:946812864 • Elorriaga_kirolak@Hotmail.com

bikefitting.com

Donien Atxa jarrita, zapatu eguerdian emango diete hasiera San Prudentzio jaiei Traña-Matienan

Katalamixon taldeko kideek izango dute ardura txosnaguneko txupinazoa jaurtitzeko; 13:30ean izango da, Txosna Batzordeak antolatuta



12:00etan jarriko dute Donien Atxa.

TXUPINAZOA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Txopoa altxatzeagaz batera hasiko dira sanprudentzioak Matienan, bihar. Aurreko urteetan ez bezala, aurten San Prudentzio bezperako eguerdian emango diete hasiera jaiei, 12:00etan. Horren ostean, Katalamixon taldeko kideek txosnaguneko txupinazoa jaurtiko dute. Apirilaren 27tik maiatzaren 5era bitartean, jai giroa izango da nagusi Matienan, eta gustu eta adin guztietarako ekintzak antolatu dituzte. Bihar, esaterako, Mozorro Eguna izango da. Eguerdian maleta siku eta *Food Truck*ak egongo dira Traña plazan eta, ostean, kuadrillen arteko jokoak egingo dituzte. Garilak 26 taldearen kontzertuagaz emango diote amaiera egunari.

San Prudentzio egunean umeentzako jolasak, *Show cooking* eta Zigor Iturrietagaz Txiki Txef ekimena egongo dira, besteak beste.

Bestalde, martitzen arratsaldean eskulanak eta Txikifesta egongo dira umeentzat Galizia plazan, eta Gorka Aguinagalderekin *El txou de Patxi* monologoa Errota Kultur Etxean. Iluntzean, Txosna Batzordeak antolatuta, Baske Street Boys taldearen kontzertu akustikoa egongo da, eta 23:00etan Gozategik alai-tuko du giroa.

Maiatzaren 1ean, eguaztenean, goizetik txahal bat erreko dute Geu Be taldekoek. Txanbolin taldeko txistulariak kalejiran ibiliko dira, eta eguerdian nekazarien azoka eta herri kirolak egongo dira. Arratsaldean, mus txapelketa, San Prudentzio pilota txapelketako finala eta *OhLimpíadas* familia ikuskizuna izango dira.

Jaietako bigarren asteburuan ere hainbat ekintza izango dira. Barikuan, maiatzak 3, txiki merienda eta Xaiborren disko festa izango dituzte gazte-txoenek. Bestalde, urteroko bertso saioa ere egongo

Bihar, apirilak 27, Mozorro Eguna ospatuko dute Matienan; maiatzaren 4an, berriz, Gazte Eguna izango da

da, 22:00etan, Errota Kultur Etxean. Txosnagunean, Dj Dema eta karaokea egongo dira.

Maiatzaren 4an, Gazte Eguna ospatuko dute. Egun honetarako ere hainbat ekintza antolatu dituzte. Traña plazan, esaterako, La Basuren kontzertua egongo da, eta Trañabarren etorbidean Patrulla Canina eta Onda Futura taldeena.

Maiatzaren 5ean emango diete amaiera aurten go San Prudentzio jaiei, 20:00etan, Donien Atxa botata.



Musika izango da protagonista sanprudentzioetan.

**neumáticos
ETXEBARRIA**

Olio aldaketa - Pneumatikoak (marka guztiak) - Balazta-pastillak - Motelgailuak

Uribitarte Industr. 6 48220 MATIENA-ABADIÑO
(Hiper Eroskiren ondoan)
Tel.: 946 232 520 - Faxa: 946 203 622
www.neumaticosetxebarría.com



Zigor Iturrietaren tailer gastronomikoetan, Atxondon dauden migratzaileentzat batuko dute janaria

Txosna Batzordeak antolatuta, 'Showcooking' bat eta Txiki Txef saio bat eskainiko ditu Zigor Iturrieta sukaldariak domekan, kozinatzen ikasteko aholkuak emateko

GASTRONOMIA • MARKEL ONAINDIA

Txosna Batzordeak antolatuta, tailer gastronomikoak eskainiko ditu Zigor Iturrieta sukaldariak apirilaren 28an, San Prudentzio egunean. 18:00etan *showcooking* bat eta Txiki Txef saio bat eskainiko ditu; lehena publiko guztientzat, eta bigarrena umei begira. Haurrei kozinatzen erakustea da Txiki Txefaren helburua, sukaldaritzako tresna eta metodo errazak erabilita. Iaz, esaterako, frutaren bidez osatu zituzten jakiak. Modu horretan, etxean umei jatekoa emateko orduan izaten diren arazoak saihestea ere bada tailerraren funtsa.

Atxondoko migratzaileentzat

Bestalde, kutsu solidarioa ere edukiko du ekimean. Izan ere, zita aprobetxatuta, janari eta arropa bilketa egingo dute. Atxondon migratzaileei babesa emateko Harrera Taldea sortuta dago, eta sei migratzailei laguntza ematen ari dira Axpeko aterpetxean. Traña-Matienako txosnetakoek bilketa haien alde egitea erabaki dute, era horretan proiektuari bultzada emateko. Iazko edizioan, Mediterraneoetik Greziara heltzen diren errefuxiatuei jatekoa eskaintzen dien Zaporeak egitasmoaren aldeko janari bilketa egin zuten.

Iazko edizioan, Mediterraneoetik Greziara heltzen diren errefuxiatuei jatekoa eskaintzen dien Zaporeak egitasmoaren aldeko janari bilketa egin zuten



Iturrietak hainbat tailer eskaintzen ditu, ETBko Txoriene saioa aurkezteaz gainera.

Loteria salmenta

petite LIBURUDENDA

PRENTSA • LIBURUAK • ALDIZKARIAK

Zubibitarte, 11 - Tel.: 946 810 438 - Matiena (ABADIÑO)

Hezgarri Liburudenda

LIBURUDENDA • JOSTAILU DENDA • EGUNKARIA • OPARI DENDA

Trañabarren 13, Matiena - Tel.: 946 816 873 - www.Hezgarri.com

Azkonizaga

Edari banaketa

GARAGARDOAK • ARDOAK • LIKOREAK
ESNEA • URA • FRESKAGARRIAK

Lejarza, 1 48213 Izurtza (Bizkaia) Tel: 94 681 06 52 / 615 78 55 58
azkonizaga@azkonizaga.com

TodoPiensos
Abadiño - Asua - Artzinlega

**TXAKURREN
ETA KATUEN
NUTRIZIO
ZENTROA**

ZUBIBITARTE, 14 • 48220
(Matiena - Abadiño) BIZKAIA
Tel: 615 765 767

Administración de loterías

N.º 1 HIRU

Ondo pasa jaietan!

San Prudentzio, 2 behea MATIENA-ABADIÑO
Tel.: 946 200 457 - loteriahiru@hotmail.com

MOTOS TABIRA

KONTZESIONARIO OFIZIALA
Salmenta • Konponketa • Boutiquea

DOAKO ASEGURUA
ITZULI DA KEEWAY
125CC GUZTIETARAKO

Tel./Faxa: 94 681 40 68
motostabira@outlook.es
www.motostabira.es

Arzubia ind., 10-B pab. - 48220 MATIENA-ABADIÑO

Garaje miguel

GARBIKETA • TAPIZERIAK
MEKANIKA • GURPILAK

Arzubia, 10A - 1 Pabiloia
Matiena - Abadiño
Tel.: 94 681 91 61
www.garajemiguel.es

ERLIA CONTENEDORES

www.contenedoreserlia.com

- Geure hondakindegia dugu.
- Harrobitako materialen banaketa.
- Obra-hondakinak eta industriako hondakinak kentzen ditugu.
- Industriako eta obretako hondakin inerteen kudeaketa.

Astola auzoa, 68 • 48220 ABADIÑO
Tel.: 646 247 350 / 946 814 107 • Faxa: 946 810 204

1.200 txahal-pintxo inguru banatuko dituzte Geu Be elkartearen alde

Maiatzaren 1ean txahala erreko dute sanprudentzioetan, dagoeneko ohitura bihurtu den ekimenean; euro biren truke pintxoa eta edaria eskainiko dituzte, eta batzen den dirua Geu Berentzat izango da



Aniztasun funtzionala dutenekin lan egiten du Geu Be elkarteak Durangaldean. Irudian, ekarpen bat jasotzen.

GASTRONOMIA • MARKEL ONAINDIA

Maiatzaren 1ean txahala erreko dute sanprudentzioetan, dagoeneko ohitura bihurtzen ari den ekimenean. Geu Be elkarteak antolatzen du orain dozena bat urtetik hona, Jose Alfaro kideak gogoratzen duenez. "Familiak, begiraleak eta gazteak egongo gara bertan, tiketak saltzen eta pintxoak banatzen". Txahal-pintxoak 2 euroan saltzen dituzte, edariagaz lagunduta. Horrela, batzen den dirua elkartearentzat izango da, euren eguneroko lana laguntzeko. Alfaroren esanetan, 1.200 pintxo

"Gaur egun leku askotan oilaskoa saltzen da, baina txahala oso leku gutxitan", azaldu du Geu Bekoak

inguru saltzen dituzte urtero, eta ordu pare batean agortzen dira.

Txahal-pintxoaren arrakasta

Txahalak arrakasta izaten duela dio Alfarok. "Gaur egun leku askotan oilaskoa saltzen da, baina txahala oso leku gutxitan. Matienan gure ohitura bihurtu da", azaldu du Geu Bekoak.

Aurreko gauerdian hasiko dira txahala erretzen, astiro-astiro, eguerdirako prest izateko.

Mozorro Eguneko kalejiragaz kaleak kolorez beteko dira

Egun osoan zehar argazkiak ateratzeko 'photocall' bat egongo da Traña plazan



Mozorroen kalejira 19:00etan izango da.

MOZORROAK • M.O.

Jaien hasiera indartsua izango da bihar Traña-Matienan, Mozorro Eguna ospatuko dutelako. Egun osoan zehar argazkiak ateratzeko photocall bat egongo da Traña plazan, eta arratsaldean, 19:00etan, mozorroen kalejira egingo dute Trañabarren kalean, Irulitxa fanfarreak lagunduta. Kalejiran parte hartuko duten kuadrilla edo taldeak ordu bete lehenago elkartzeko dira Traña plazan, denen artean argazki ofiziala ateratzeko.

Sanprudentzioak amaitu eta gerora, maiatzaren 6tik 17ra bitartean, Mozorro Egunean ateratako argazkien erakusketa egongo da ikusgai Errota kultur etxean.

BODEGUILLA
TRAÑA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

ATSEGIN
CAFETERIA BAR
Trañabarren, 9 behea • Tel.: 946 072 198

TIPI-TAPAK
TABERNA
San Prudentzio jaietako txosnen aurrean gaude!

VANCOUVER
Bar - Cafeteria
Berezitasuna askotariko pintxoetan. Rabak asteburuetan eta jaiegunetan.
Trañabarren Etorbidea, 9 • MATIENA
Tel. 94 681 70 39

OSTENDI Jatetxea
«KALI»
C/ Zubibitarte, 5 - 48220 Matiena-Abadiño
Tel.: 94 681 20 19

Cafetería Oxford
MATIENA-ABADIÑO
ondo pasa jaietan!
Trañabarren, 7 - MATIENA-ABADIÑO
Tel.: 946 818 884 (Bizkaia)

Bedats
TABERNA
San Prudentzio Kalea, 6
Traña - Matiena

HSB
Hotel San Blas
Laubideta Kalea, 7
48220 Abadiño - Matiena
Tel.: 946 52 55 46
www.hotelsanblas.net

Aisialdian eta balioak sustatzen egindako lanagatik, Katalamixonek botako du txosnaguneko txupinazoa

Abadiñoko aisialdi taldeko kideek bihar piztuko dute txosnaguneko txupina, 13:30ean

TXUPINAZOAZO • JOSEBA DERTEANO

Katalamixon aisialdi taldeak botako du txosnaguneko jaiari hasiera emango dien txupinazoa. Bihar izango da, 13:30ean. Aisialdi alternatiboa eskaintzen zein gazteen artean askotariko balioak zabaltzen egindako ahalegina eskertu gura diete, txosnagunetik jakinarazi dutenez. Katalamixonetik, berriz, "esker oneko" agertu dira euren lana baloratzeagatik, eta bidelagun dituztenekin eta izan direnekin gogoratu dira. "Eskerrak eman gura dizkiegu aisialdi taldeko begirale izan diren denei. Baita gugaz lan egiten duen guraso taldeari ere, babes handia eskaintzen digutelako", adierazi du aisialdi taldeko kide Ander Saeterok.

Katalamixonek hiru urte daramatza aisialdia heziketako baloreekin lotzen. "Taldea sortu zenetik, argi geneukan aisialdi alternatiboa eskaini bai, bai-

na balio hezitzaile batzuetan oinarrituta ere egon behar zela", adierazi du Saeterok.

Euskara, ardatz nagusia

Ardatz asko lantzen dituzte, baina "nagusiena" euskara da. "Ikusten genuen Abadiñon eta auzo batzuetan eskola eremuagaz lotzen zutela gazteek euskara, eta handik kanpora ez zutela hartu-eman handirik hizkuntzagaz. Euskara beste eremu batzuetara zabaltzeko aukera moduan ikusten genuen aisialdia", gogoratu du. Euskaraz bizi dira taldean, eta euskarari lotutako hainbat ekimen prestatzen dituzte: Euskarazi Bizi postal lehiaketa, Euskara Egunari lotutako egitarau zabalala...

Ingurugiroarekiko eta naturarekiko balioak sustatzen ere saiatzen dira, birziklapenaren inguruko ekimenak antolatuz edo Bertón Bertokoa

mugimenduko lana ezagutuz, besteak beste. Aniztasun funtzionala dutenen Geu Be elkarteko gazteekin egindako sukaldaritza jardunaldia da aisialdi soiletik haratago joatearen beste adibide bat. "Hasieran ez genekien zelan irtengo zen, baina, azkenean, bai gu, bai eurak oso pozik ibili ginen. Errepikatzeke moduko ekimena izan zen", baloratu du Saeterok.

Hiru urtetik aurrerakoekin hasiberriak

Orain arte 3-15 urte arteko adin tartean zentratu dira batez ere. Hori baino gazteagoen ekimenak aldian-aldian antolatu dituzte. Baina 2019a hasi denetik, hiru urterako artekoen ludoteka kudeatzen ere badabilta. Orain adin tarteen denei begirako ekintzak prestatzen dituzte. Umekin hainbat tokitan batzen dira, astero eskulanak eta bestelako jolasak egiteko.

Udaleku finko-ibiltariak

Aurten nobedade bat izango dute udalekuan: finkoak ez ezik ibiltariak ere izango dira. Eredu biak uztartuko dituzte Nafarroan, Lizarra eta Mendigorria inguruan garatuko den egonaldian. "Aurtengo berrikuntza nagusia da eta ilusio handiz gabiltza lanean", adierazi du Saeterok.

Apirila amaitu bitartean, oraindik izena emateko aukera dago katalamixon@gmail.com helbide elektronikoaren bidez.

"Taldea sortu zenetik, argi geneukan aisialdi alternatiboa eskaini bai, baina balio hezitzaile batzuetan oinarrituta ere egon behar zela"



Katalamixon aisialdi taldeko kideak Korrika Abadiñotik igaro zen egunean ateratako familia argazkian.


MAPFRE
BEGOÑA NAVARRO CAPANAGA
MAPFREKO DELEGATUA MATIENAN

San Prudentzio, 2
Matiena - Abadiño
Tel.: 94 681 88 89
681 374 042
navarrb@mapfre.com
www.mapfre.com/oficinas/4837

Gisasola Pentsuak
- EKO GARDEN -


Ortuko landareak urte guztian

Trañabarren, 27 · Matiena-Abadiño
Tel.: 946 816 687
gisasola.p@gmail.com


ALBAÑILERÍA

Igeltserotza orokorra
Etxebizitzaren zaharberritzeak
Merkataritza-lokalak
Baserriak

GREMIOEN KOORDINAZIOA

686 420 383
946 202 565

MATIENA ESTANKOIA

Trañaetxoste, 2
MATIENA - ABADIÑO
Tel.: 946 814 033

Talleres Serafín
S.Coop



Elorriagazar, 11
MATIENA-ABADIÑO
Tel.: 946 814 807

MUSIKA • LEIRE PALACIOS (TTAP)

Elena Caballero, La Basu rap abeslariak, lan berria du esku artean. Disko berriak ez du izenik oraindik, eta euskaraz eta gaztelaniaz dago grabatuta. Horrez gain, 'Agoia' izenburuko liburu autobiografikoa ere amaitzean dauka eta aurten kaleratuko du.

13-14 urtegar Etxebarritik Bilbora oinez joaten ziren, rap kantariekin egoteko. Zelakoa zen giroa?

Gizonezkoak ziren denak. Ez da erraza izan, zeren, azkenean, ni gaztea nintzenez ez nuen ulertzen... Kontsumitzen nuena eta ikusten nuena egiten nuen; erreferente guztiak gizonezkoak ziren. Hortaz, ez zegoen aukerarik besterik egiteko. Eurak bezala janzen nintzen –gustatzen zitzaidalako ere bai–, eurek bezala rapeatzen nuen... Gaztea zarenean ez zara konturatzen. Adinean aurrera konturatzen zara emakumea izanda, agian, gauza ezberdinak egin gura dituzula. Egia esan, ez dut arazorik izan emakumea izateagatik, baina bai oholtzara igotzen nintzenez, mikroa jartzen zidatenean ea zer egiten nekien esanez bezala. Euren artean ez zegoen halakorik, baina ni emakumea nintzen eta banekiela rapeatzen erakutsi behar nuen. Beti diot emakume izateagatik bizitzan birritan edo hirutan erakutsi behar badituzu gauzak, rapean hiru, lau, bost, sei bider erakutsi behar dituzula. Gizonezkoen mundua izan da beti. Hortaz, jasan dut diskriminazioa? Bai, baina gerora konturatu naiz.

Zer da Eskina Femenina?

Maiteminduta nago proiektu honeguz. Egin beharreko gauza zen. Orain sei urte abiatu zen. Idazketa tailerrak egiten ditut ikastetxeetan. Euretako batean mutil gazte bat etorri zitzaidan, harrotuta. "A, emakumea zara? Baina emakumeek ez dakite rapa egiten", esan zidan. Askok ez dakite rapa egiten duten emakumeak ere existitzen direla, eta pentsamolde hori aldatu behar dugu. Aneguriagaz berba egin nuen, horren aurrean zerbait egiteko. Dirurik ez geneukanez, Youtuben kanal bat sortzea pentsatu genuen, emakumeek bideoak jartzeko. Lauzpa-bost neska ezagutzen genituen, baina ez zeukaten bideorik. Irratian ere aritu ginen, saio bat egiten. Idazketa tailerrak ere egiten ditugu, gizonezkoentzat zein emakumezkoentzat. Jendeak uste du emakumeentzat direla bakarrik, eta, nire ustez, oso garrantzitsua da gizon batek jakitea zer den emakume izatea raparen munduan. Gure idazketa tailerrak ez dira itxiak. Horrela hasi ginen, eta Eskina Femenina proiektua, azken batean, emakumeak lanean ari direla jakinarazteko da, eta emakumearen lana hip-hoparen munduan zabaltzeko.

Beste proiektu bat ere baduzu esku artean.

Autobiografia bat da. Nire bizitzaren istorioa eta emakumeen eta raparen arteko lotura. Diskoak grabatu bai, baina nik betidanik idatzi dut eta liburua egin gura nuen. Ia amaituta daukat eta aurten kaleratuko dut, seguru. Agoia du izenburu.

"Rapean diskriminazioa jasan dut, baina gerora konturatu naiz"

Maiatzaren 4an, zapatuan, La Basu rap abeslariak kontzertua emango du Traña Plazan, 22:30ean



La Basu.

(Elkarrizketa osoa Ttap aplikazio multimediaran)

TALDE TXIKIAK
CAMBRIDGEKO
AZTERKETA
OFIZIALETARAKO
FORMAZIOA

Zubibitarte 11, Behea ezkerrean
 Matiena, Abadiño
 www.redhilllanguage.com
 redhill.language.school@gmail.com
 Redhill Language School

Cambridge English
 First for Schools

REDHILL LANGUAGE SCHOOL
 6067 57720 - 94681 4282

DIBA
 KOOPERATIBA

Durangaldeko
 Baserritarren
 Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

"Txartelak banatuko ditugu jendearen artean, eta eurek erabakiko dute saioko hurrengo kantua"

Txosnaguneetan urteetan zehar entzun diren euskarazko kantu 'klasikoak' aldarrikatuko dituzte Wimix eta Alus musika jartzaileek euren saioan



DJ Wimix eta DJ Alus demarako gertu.

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Musika saio berezia prestatu dute Matienako Txosnagunean maiatzaren 3rako. Bertan egongo dira Ekaitz Herrera 'Wimix' eta Gaizka Alustiza 'Alus' musika jartzaileak, lehenengoz, elkarregaz.

Zer da DJ Dema?

E.H.: Funtsean, DJ bi egongo gara, ordenagailu bigaz. Hautagaitza etengabearen garaia bizi dugu, eta guk anestesiarren joko demokratiko horri gure

"Biotako batek abesti edo gai bat proposatuko du, besteak erantzuna, eta publikoak erabakiko du zein izango den entzungo den hurrengo kantua"

ekarpenetxo egingo diogu. Alusek kantu edo gai bat proposatuko du, eta nik gai edo kantu kontrajarri bat proposatuko dut. Demokrazia zuzena (barrez).

G.A.: Gutako bakoitza kolore batez identifikatuko da. Txartelak banatuko ditugu jendearen artean, eta eurek erabakiko dute zein izango den saioko hurrengo kantua.

Parte-hartzailea izango da saioa, beraz.

G.A.: Estilo anitzetako abestiak proposatuko ditugu. Jendea gure proposamenetara moldatuko da. Abesti

batzuk ere utziko ditugu jendeak erabakitzeke.

E.H.: Edozer gertatu ahal da, oraindik ez dago guztia itxita. Musika joko modura planteatzen ahaleginduko gara. Esaten da dena kontatuta dagoela musikan, eta horrela izango da beharbada, baina gure ekarpena, egotekotan, musika entzuteko forma hori aldatuko dela da.

Eta zein estilo aukeratu dituzue?

E.H.: Nahiko musika txosneroa izango da. Azkenaldian, zumba musika jabaetzen ari da txosnetako dezibelioez, baina ez digute galdetu ea txandala eta toalla ekarri gura ditugun txosnetara. Gu zintzoak izango gara. Gure demara datorrenak txosnetako musika edukiko du ondo pasatzeko.

G.A.: Biluztu egingo gara jendearen aurrean, baita modu literal batean ere. Dekoratu prestatzen ari gara, boxeo ringa izango dena beharbada. Lehia hori islatuko dugu.

"Zunba jabetzen ari da txosnetako dezibelioez, baina ez digute galdetu txandala eta toalla eraman nahi ditugun"

E.H.: Beti dago lehia hori. AEB-SESB, Hego Korea-Ipar Korea, Polimili-Mili, Diario Vasco-Argia... guk ere etekina aterako diogu gerra horri.

Txosnek betiko izaera hori galdu dutela uste duzue?

G.A.: Baliteke. Garaiak ere aldatu egin dira. Beste estilo batzuk gehiago entzuten dira; rapa, esate baterako.

E.H.: Indarrean egon den testuinguru soziopolitiko baten ondorio izan dira txosnak beti. Testuingurua aldatu den heinean, txosnagune kontzeptua ere noraez batean dago. Aldaketa garai bat bizi dute txosnek, eta beharrezkoa da hori. Zein da helmuga? Ez dakigu.

G.A.: Euskarazko musikaren aldeko apustua ere egiten dugu. Zergatik ematen zaio indar gehiago kanpoko musikari hemengoari baino? Hemengotakuna defendatzeko modu bat da hau.

E.H.: Gaur egun, kanpoko ez zaigu hain arrotz, onerako zein txarrerako. Estetika berriak sartu dira, rapa, reggaetoi, trapa... Kontzeptu aldetik ondo dago, baina umezurtz utzi du orain arte txosnagunean hezi izan den izaki mota hori.

Hutsik egingo ez duten hiru abesti aukeratu

G.A.: Kuraiaren 'Egunsentian', Etzakiten 'Egina', eta Leihotikanen 'San Fermin'.

E.H.: Kortaturen 'Zu Atrapatu Arte!', ETSren 'Musikaren Doinua' eta Rafaela Carraren 'Explota mi corazón'.

bagoaz

TXINURRISOLO 8 BEHEA
MATIENA- ABADIÑO
944657577- 688611787

NEURRIRA EGINDAKO BIDAIK

SCHMIDT
Sukaldeak eta etxeko altzariak

Eroski Merkatal Zentroa

Jai zoriontzuek opa dizkizue!

Murueta Auzoa z/g
48220 Abadiño
Tel.: 94 652 61 95

“SUKALDEAK ETA ETXKO ALTZARIAK NEURRIRA”

www.homedesign.schmidt



'Biz Hitza' DANTZA BERRIZ :: Apirilak 26

Eukara Batuaren historia dantzatua ikusteko aukera

Dantza bidelagun hartuta, Euskara Batuaren historia partiku-

larra kontatu gura du Aukeran dantza taldeak *Biz Hitza* ikuski-

zunean. Xabi Paya kulturgileak gidoia idatzi eta Aukeran taldeak koreografia sortu du. Martxoan estreinatuta zuten Euskaltzaindiak babestutako ikuskizuna.

Berrizko Kultur Etxean izango da ikusgai, gaur, 20:00etan.

Apirilaren 26an

ELORRIO musika

Los Vinagres, 22:30ean, Ateneoan.

IURRETA jaiak

Mozorro afaria: Txina, iluntzean, Oromiño auzoan.

ZORNOTZA antzerkia

'Universario' (Marcel Gros), 20:15ean, Zornotza Aretoan.

Apirilaren 27an

BERRIZ ipuinak

Ipuin txokoa: Eneko Haritza, 12:15ean, Kultur Etxean.

ELORRIO antzerkia

'Lyceum Club' (La Dramática Errante) 19:30ean, Arriolan.

IURRETA Oromiñoko jaiak

Maiztegi eskolako umeen dantza saioa, 17:00etan, Oromiñon. Gero umeentzako jolasak. Tortilla txapelketa, 19:00etan (aurkezpena, 20:00etan). Takitto taldeagaz erromeria (afalostean ere bai). Sorpresa, gauerdian. Txokolatada, goizaldean.

Apirilaren 28ra arte

DURANGO erakusketa

'Argiak eta itzalak'. (Acuzena Fernandez). Arte eta Historia Museoa.

DURANGO erakusketa

'At Ente' erakusketa kolektiboa: Iranzu Antona, Mariana Unda, Eztizen La Cruz, Leire Muñoz, Clara Elizondo eta Andere Etxegarai. Arte eta Historia Museoa.

IURRETA Oromiñoko jaiak

Meza, 12:00etan. Ondoren, Mikel Deuna dantza taldea eta trikitilariak. Kantu bazkaria Eingo taldeagaz, eguerdian. 'Artantxuriketan' ikuskizuna (Maixux Zugarramurdi eta bere alabak, Ansa ahizpak), 18:00etan. Errifaren zozketa.

Apirilaren 29an

MAÑARIA izena ematea

Garagardo elaborazio tailerlean izena emateko azken eguna. Udaletxean (07:00-11:00) eta liburutegian (15:00-19:00). Gehienez, 30 lagun. Tailerra maiatzaren 5ean izango da, Herriko plazan, 09:00etatik 14:00etara. Mokadua eta garagardo dastatzea, 11:00etan. Garai Brewing Companyk antolatuta, udalaren laguntzagaz.

Apirilaren 30ean

DURANGO hitzaldia

'Oinezko, mugitu zaitez segurtasunez Durangon'. 18:00etatik 20:00etara, Nagusien Egoitzan eta kalean zehar. Herriko nagusiei zuzenduta, Stop Accidentes-Euskadik Durangoko Udalgaz batera antolatutako kontzientziazio eta sentsibilizazio kanpainaren barruan.

DURANGO opera zuzenean

'Fausto' opera HDn. 19:45ean, Zugaza Zineman.

DURANGO hitzaldia

'Goya ezagutzen' (Hizlaria: Satur Peña Historian doktorea), 18:00etan, Arte eta Historia Museoa. Bizidun Durangaldeko Nagusien Elkarteak antolatuta.

Maiatzaren 2an

DURANGO ikastaroa

'Beldur eszenikoari aurre egiteko teknikak', 19:00etan, Plateruena kafe antzokian. Julen Orbegozo EHUKo irakasleak gidatuta. Hitzez eta Ahotsez.

ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu 946 232 523 telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Apirilako agenda



27

"SAN MARKO JAIK 2019 OROMIÑO"

17:00 Maiztegi Herri eskolako umeen dantza erakustaldia Ondoren, ume jolask. Iluntzean, tortilla txapelketa. Ordu berean, erromeria "Luhartz" taldeagaz. Afalostean, erromeriaren jarraipena. Gauerdian inguruan SORPRESA Goizaldean txokolatada.

28

"SAN MARKO JAIK 2019 OROMIÑO"

12:00 Meza Ondoren, Iurretako Mikel Deuna dantza taldea. Giroa alaitzeko, trikitilariak egongo dira. Kantu bazkaria EINGO taldeagaz Jaietako amaiera emateko, errifaren zozketa eta Donien Atxa kentzea.

29

"IURRETAKO HERRI BIIBLIOTEKA"

18:00 Emakumeen literatur tailerra Anderebide Goiria kultur gunea 18:30 Zoru pelbikoaren indartzea

30

"INGELESEKO IRAKURKETA KLUBA"

Iurretako Herri Biblioteka 18:30 Zoru pelbikoaren indartzea

Maiatzaren 3an

ABADIÑO zineforuma

'Una segunda madre'. 17:30, Abadiñoko gaztetxean. 'Genero auzia klase ikuspegitik' jardunaldien barruan. Otxandioko, Abadiñoko, Berrizko eta Elorrioko gaztetxeek antolatuta.

BERRIZ izena ematea

Txakurren heziketarako oinarritzko ikastaroan izena emateko azken eguna. Izena-ematea Berrizko Kultur Etxean. Maiatzaren 6an eta 8an eskainiko da ikastaroa euskaraz; gaztelaniaz, maiatzaren 13an eta 15ean. Iñaki Mantzizidorrek gidatuko ditu ikastaroak.

BERRIZ izena ematea

Arabako Errioxako ardoa, Txakolina eta Idiazabal J.D. gazta dastatzeko, Berrizko Kultur Etxean eman behar da izena: kultura@berriz.eus / 94 682 78 60. Azken eguna da. Dastaketa maiatzaren 7an izango da.

BERRIZ irakurtaldia

Irakurtaldi dramatizatua: 'Euskal literatura zaharrari buruz Martuteneko kartzelan', 20:00etan, Kultur Etxean.

Zinea

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Alfonbra magikoa**
barikua 26: 18:15
domeka 28: 17:00

:: Durango ZUGAZA

• **Vengadores: Endgame**
barikua 26: 18:30/21:00
zapateria 27: 17:30/18:30/21:30
domeka 28: 16:30/20:15
astelehena 29: 19:00/20:30
martitzena 30: 20:00
eguzatena 1: 20:15

• **La pequeña Suiza**
barikua 26: 18:30/22:00
zapateria 27: 18:30/20:30/22:30
domeka 28: 19:00/21:00
astelehena 29: 18:30/20:30
martitzena 30: 19:30
eguzatena 1: 19:00/21:00

• **La Llorona**
barikua 26: 22:00
zapateria 27: 22:30
domeka 28: 19:00/21:00
astelehena 29: 18:30
martitzena 30: 21:30
eguzatena 1: 21:00

• **Terra Willy**
zapateria 27: 16:30
domeka 28: 17:00
eguzatena 1: 17:00

:: Elorrio ARRIOLA

• **El gordo y el flaco**
zapateria 27: 22:00
domeka 28: 20:00
astelehena 29: 20:00
eguzatena 1: 20:00

:: Zornotza ARETOA

• **La pequeña Suiza**
zapateria 27: 19:30/22:00
domeka 28: 20:00
astelehena 29: 20:15

• **Terra Willy**
zapateria 27: 17:00
domeka 28: 17:00

Los Vinagres taldearen kontzertuagaz itxiko dute denboraldi berria AteneON ekimeneko kideek

Gaurko kontzertua 22:30ean hasiko da, Elorriko Ateneoan; emanaldiaren ostean, DJ Elvis Caino musika jartzaileak girotuko du festa aretoa



Los Vinagres taldea.

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Los Vinagres taldearen kontzertuagaz amaituko dute Elorriko AteneON ekimena, gaur. Kanariar Uhartean sortu zen Los Vinagres, 2011. urtean. Egun, oster, Madrilen bizi dira taldekideak. Hirukoteak 'sumendiko rocka' legez definitzen ditu bere doinu dantzagarriak. "Taula gainean ondo pasatzen dute, jai bat muntatzen dute eta hori transmititzen dute". azaldu du Karlos Gomezek. *Los Volcanes* biraren azken txanpan dago sartuta hirukotea, jada 40 kontzertu baino gehiago emanda. Festa borobiltzeko, DJ Elvis Cainok musika jarriko du kontzertu ostean. Sarrera sei euro dira.

Pasioz bizi dira AteneON ekimeneko kideak, eta pasioz egiten dute dena. Musika dute pasio kide guztiek, eta zaletasun hori herritarren zerbitzura jartzen saiatzen dira, AteneON kontzertu sorta antolatuta. Izan ere, euren leloak dioen bezala, bizitzari zentzua ematen dioten "plazer txikiak" dira kontzertu hauek. "Musutruk egiten dugu dena, eta disfrutatzen", azaldu du Gorka Molero AteneONeko kideak. Ekimen autogestionatua da AteneON, horrelakoak ikustea gero eta gaitzagoa den arren. Elkarren artean beharra banatu, eta

ekimeneko kideak arduratzen dira diseinuaz, taldeei harrera egiteaz, soinuaz eta argiztapenez. "Hamabost bat lagunek osatzen dugu talde iraunkor bat-edo izan daitekeena, baina laguntzen digun askoz ere jende gehiago dago inguruan", azaldu du Miren Amestik. Bide batez, ekimenera joateko deia egin diete elorriarrei, gazteei batez ere.

Euskal Herritik kanpokoak

Denboraldi berri honetarako, beste erronka bat ezarri diote euren buruari. Elorriko hainbat taldegaz egin zuten lehenengo denboraldia, eta, bigarren, Durangaldeko eta inguruetako taldeak ere gonbidatu zituzten ekimenara. Hirugarren denboraldi honetan, Euskal Herritik kanpoko taldeak ere aritu dira Ateneoan oholta gainean: Vulk, Soledad Velez, Liher, Moonshaker eta Rukula, besteak beste. "Gero eta jende gehiagok egiten du ekarpena programaziorako taldean, aukera gehiago irteten dira eta horrek aniztasuna bermatzen du", adierazi dute antolatzaileek.

Kontuak kontu, antolatzaileak pozik daude ekimenagaz. "Hobetzen saiatzen gara beti. Aurten, adibidez, emakumezkoen talde gehiago programatzen saiatu gara", azaldu Txaber Agirrek.

Ertzak taldearen folk doinuekin emango diote hasiera Intxaurren Domekak Musikaz zikloari

Domeka honetan izango da lehenengo kontzertua; 13:00etan hasiko da Ertzak taldearen emanaldi akustikoa



Ertzak taldea bere emanaldi batean.

MUSIKA • A.M.

Musika eskaintza zabala antolatzen jarraitzen du Intxaurre kultur elkarteak. Domeketako goizak girotzeko, kontzertu akustikoak eskainiko dituzte bertan, Domekak Musikaz kontzertu sortaren baitan.

Ertzak izango da jaialdia estreinatuko duen taldea domeka honetan. Folk oinarri, doinu intimoak lantzen ditu boskoteak. 2017ko udan sortu zen taldea. Aritz Alustiza, Amaia Aranzabal, Oihane Vicente, Idoia Asurmendi eta Ekaitz Otxoa dira Ertzak. *Gaur* diskoaren aurkezpen biran murgilduta daude gaur egun.

Folka oinarri, doinu intimoak lantzen ditu Ertzak boskoteak; 2017an sortu zen taldea

Bigarrena, maiatzean

Maiatzaren 5ean izango da Domekak Musikaz kontzertu sortaren bigarren emanaldia. Kasu horretan, Dr Moranx taldeak eskainiko du kontzertua.

Animatu gure Haurreskoletako partaide izaten
**HAURRESKOLETAN HAURREN
ONGIZATEA HELBURU**



TRAÑA-MATIENA

ABADIÑOKO HAURRESKOLA
Trañaetxoste, 10 ABADIÑO
Tel.: 946 202 166
tranamatiena.abadino@haurreskolak.eus



ZELAIETA

ABADIÑOKO HAURRESKOLA
San Trokaz enparantza, 7 ABADIÑO
Tel.: 946 200 672
zelaieta.abadino@haurreskolak.eus



ATXONDOKO HAURRESKOLA
Foruen plaza, 7 ATXONDO
Tel.: 946 859 002
atxondo.atxondo@haurreskolak.eus



EGUZKILORE

BERRIZKO HAURRESKOLA
Margarita Maturana, 4 BERRIZ
Tel.: 946 826 339
eguzkilore.berriz@haurreskolak.eus



JULENE AZPEITIA

DURANGOKO HAURRESKOLA
San Roke, 4 - behea DURANGO
Tel.: 946 203 516
julene.durango@haurreskolak.eus



ELORRIKO HAURRESKOLA
Goieta, 62 ELORRIO
Tel.: 946 584 907
elorrio.elorrio@haurreskolak.eus



ETORKIZUNA

IURRETAKO HAURRESKOLA
Olaburu, 5 IURRETA
Tel.: 946 200 937
iurreta.iurreta@haurreskolak.eus



INTXAURTI

MALLABIKO HAURRESKOLA
Intxaurti, 12 - behea MALLABIA
Tel.: 943 172 003
intxaurti.mallabia@haurreskolak.eus



MAÑARIKO HAURRESKOLA
Herriko Plaza, 2 MAÑARIA
Tel.: 946 218 308
manaria.manaria@haurreskolak.eus



ZALDIBARKO HAURRESKOLA
Autonomia kalea, ZALDIBAR
Tel.: 946 824 497
zalduzubieta.zaldibar@haurreskolak.eus



ZORNOTZAKO HAURRESKOLA
Larrea auzoa, z/g AMOREBIETA-ETXANO
Tel.: 946 730 346
zornotza.amorebieta@haurreskolak.eus

**MATRIKULAZIO
DATAK**
Maiatzak
2tik 10era

Berrizko paisaiak koadroetan jasoko dituzte kaleko pintura lehiaketan

Hogegarren edizioa du Berrizko kaleko pintura lehiaketak; maiatzaren 4an izango da



Iker Mugarza, iazko lan irabazleagaz.

MARGOLARITZA • A.M.

Zapatuan, maiatzak 4, izango da XX. Berrizko Kaleko Pintura Lehiaketa. Ohikoa den legez, herriko hainbat txokotan ibiliko dira artistak, Berrizko paisaiak euren koadroetan jasotzen. Irabazleak 600 euroko saria jasoko du, bigarrenak 500ekoa eta hirugarrenak 400ekoa. Aurkezturiko lanak maiatzaren 4tik 25era bitartean erakutsiko dira, Berrizko Kultur Etxean.

Parte-hartzaileen lanak maiatzaren 4tik 25era bitartean egongo dira ikusgai, kultur etxean

Irabazleak 600 euroko saria jasoko du, bigarrenak 500ekoa eta hirugarrenak 400ekoa

Urterik urte gora doa parte-hartzaile kopurua, eta azkeneko edizioetara Euskal Herritik kanpoko jendea ere animatu da.

Iaz, 28 parte-hartzaile Kaleko pintura lehiaketak 28 parte-hartzaile bildu zituen iazko edizioan, eta Iker Mugarra margolariaren *La Forja* lanak lortu zuen botorik gehien.

Gai librea

Garazi Mugarza Markina Erizaina



Zerrendak

Udaberria abisatu gabe iritsi zen otsailean, eta zuk zure bizimodu txikiarekin darraizula dirudien arren, are arrarago zabilza ordutik. Aste Santuko egunak gauzak amaitzeko hartu dituzu, ze hor ibili zara egunero eta etengabe —ia zerrori eta ingurukoak gogaitu arte— zerrendak egin eta egin edozein paperetan, eskugaineko azalean, mugikorrean. Zerrendak daukazazu hozkailuan eta ordenagailuko teklatuaren ondoan, eta ezinbestean oroitu behar dituzunak sarrerako atean itsatsita. Eta, badaezpada, alarmak. Zure burua oso modu kuriosoan topatzen duzu sarritan; ez duzu asmatzen kartera eta poltsikoetan pilatu zaizkizun paperak noiz eta zergatik idatzitakoak diren, harritu egiten zaitu kontu batzuk zerrenda guztietan topatzeak, eta edozein txiki-keria amaitzen duzunean, lorpen handi baten garrantzia emanda, harro ezabatzen duzu zerrendatik.

Hor ibili zara egunero zerrendak eta zerrenden zerrendak egiten (glazomania, omen) behin eta berriz zeure buruari gogorarazteko zer den benetan egin behar duzuna, uzteko behingoz zure kolerak eta kulpak, gauzak daukazazula egiteko. Baina zerbaitek ihes egiten dizunean, agur. Hori gertatzen zaizu beti dena neurtzen ibiltzen zarelako, zure bizitzako afera guztiak kontrolpean eutsi nahian, denaren aurretik joateko zure zera horrekin estututa.

Gaur zure aurreko gizonak erosketa zerrendako hitzak banan-banan ezabatu ostean, papera txiki-txiki eginda utzi du supermerkatuko ilaran, eta konfeta balira bezala jaurti. Erotuta bukatuko dugu denok, dudarik ez izan.

Muturreko musika doinuak protagonista Sorginola gaztetxean

Underground Fest jaialdiaren lehen edizioa izango da bihar

MUSIKA • A.M.

Muturreko metal doinuak nagusituko dira bihar Sorginola gaztetxean. Klown, Storm, State Alerta eta Akabu taldeek kontzertua eskainiko dute Underground Fest jaialdiaren baitan.

Lehenengok *Pelea por tu vida* kaleratu berri duten lana joko dute taula gainean. Martxoan Abadiño-ko gaztetxean diskoa aurkeztu zu-

tenetik, hainbat kontzertu eskaini ditu boskoteak. Storm Herrialde Katalanetatik dator; lehenbiziko diskoa aurkeztera datoz. Black, doom eta core doinuak uztartzen dituzte. State Alerta eta Akabu taldeek ere eskainiko dituzte kontzertuak, euren lanak aurkezteko. 21:00etan hasiko dira kontzertu guztiak.



State Alerta taldeak joko du zapatuan, besteak beste.

R.P.S. 214/06
A. Urreta podólogo

Ainara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

hitz liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#nobedadeak

GOMUTAN Hektor Ortega 2018
SIBERIA TRENEKO IPUINAK Bernardo Atxaga 2019
BLACKHEARTH Blackhearth 2019

Zure iragarkia jarri nahi duzu?

publizitatea@anboto.org
94 621 79 02

anboto komunikabideak



www.gualbiasesores.com

- ✓ Aholkularitza fiskala
- ✓ Kontabilitate-aholkularitza
- ✓ Merkataritza eta finantza-aholkularitza
- ✓ Lan-aholkularitza
- ✓ Kontu-auditoretza
- ✓ Aholkularitza juridikoa

**Bezera, enpresako bere kudeaketa
eta bere gogobetetzea dira gure helburu nagusia**

Zumalakarregi kalea, 18 1.A - DURANGO
Tel.: 946 818 636 - Faxe.: 946 203 637 - info@gualbiasesores.com

Hamalau gazteren zaletasunari esker sokatirak bizirik jarraitzen du Abadiñon

2001. eta 2006. urte artean jaiotakoak dira eta, momentuz, astean behin entrenatzen dira



Gazte abadiñarrak sokatiran, Abadiñoko topaketan.

SOKATIRA • JOSEBA DERTEANO

Hamalau gazte abadiñar sokatira probatzen hasi dira. Nagusiak erretiratu direnean, labekada berriak erreleboaren esperantza piztu du Abadiño Sokatira Taldean.

"Ez dakigu proiektu berria noraino helduko den. Gazte asko beste kirol batzuetan ere badabiltza. Momentuz, denborapasa da. Hori bai, oso pozik dabilta", zehaztu du Edu Mendizabal Abadiño Sokatira Taldeko kideak.

Gehienak 2003. eta 2006. urteen artean jaiotakoak dira, 2001ean jaiotakoren bat ere badagoen arren. Abadiño Sokatira Taldeko tiralari izandakoen semeak dira hainbat. Astean behin entrenatzen dira, domeketan.

Ilusioa piztu dute behinik behin. "Entrenamenduetan lehen-go talde ia osoa batzen gara. Ilusioa eragiten du gazteak ikusteak".

Iurretan ere sokatiran

Iurretan ere badabiltza gazteak sokatiran, kasu honetan Heki klubaren eskutik. Lantzen dituzten askotariko herri kirol modalitateen artean sokatira ere badute. Orain-

tsu herri bietako taldeek Zelaietako probalekuan egindako topaketa batzuetan parte hartu zuten. Bizkaiko federazioak horrelako hainbat antolatuko ditu aurten, gazteen artean sokatira sustatzeko.



Iurretako Heki herri kirol taldeko gazteak sokatiran, Abadiñoko topaketan.



Eneko Saralegi nafarra da Berrizen arituko den aizkolarietako bat. Egursport

Sei aizkolari txapelketa nagusiko hurrengo fasera sailkatzen saiatuko dira Berrizen

Urrezko Buruz Buruko Aizkolari Txapelketari dagokion kanporaketa bat Olakueta plazan lehiatuko dute, bihar

AIZKOLARITZA • J.D.

Juanjo Azpilikuetak, Joxean Etxeberriak, Eneko Saralegik, Xabier Zalduek, Jexux Mari Mugikak eta Julen Alberdik osatuko dute zapatuan 12:45ean Berrizko Olakueta plazan batuko den seikotea. 30 enbor arinen mozten dituzten biak hurrengo fasera sailkatuko dira.

Aizkolarien ostean, trontza eta harri-jasotze erakustaldiak egingo dituzte. Trontzan, Karmele Gisasola Zelai III.a izango da protagonistetako bat. Mallabitarrek eta Uxue Ansorregi mendaroarrak Ainize Perez eta Iraide Gezuraga izango dituzte aurkari.

Amaitzeko, harri-jasotze txapelketaren barruan Aimar Ga-

larraga eta Iñigo Eizagirre hiru harrigaz ibiliko dira lanean: 175 kiloko laukizuzenagaz, 100 kiloko kubikoagaz eta 100 kiloko bolagaz.

Ioritz Gisasola final atarian

Hurrengo egunean, domekan, 23 urtez azpiko Urrezko Aizkora Txapelketako finalerdia lehiatuko dute Armentian (Gasteiz). Bertan batuko diren lau aizkolarietako bat mallabitarra da: Ioritz Gisasola Zelai IV.a. Finalera sailkatzeko faboritoen artean dago. Julen Larreak (Barakaldo, Bizkaia), Joxan Etxeberriak (Ziga, Nafarroa) eta Oier Kañamaresek (Arostegi, Nafarroa) osatuko dute laukotea.

Asteko kirolaria



OIHANA AZKORBEBEITIA URIZAR
Abadiño, Korrikalaria

"Japonian maila handiko korrikalariak egon direla ikusita, lortutakoak konfiantza eman dit"

Garaipen bategaz eta zortzigarren postu bategaz itzuli da Azkorbebeitia Munduko Kopatik

rrak hasiera ezin hobea eman dio denboraldiari Japonian.

Garaipen bategaz eta zortzigarren postu bategaz itzuli zara Japoniatik. Zelako balorazioa egiten duzu?

Balorazioa oso positiboa da. Behin Japoniara joanda, bertikala eta lasterketa, biak egitea zen gure asmoa. Bertikala egitea nire nahi bat izan zen, eta inongo prententziorik barik aritu nintzen.

Irabaztea lortu nuen eta balorazioa ezin hobea da. Lasterketako zortzigarren postuagaz ere pozarren nago, maila izugarria zegoen eta.

Mendi lasterketen Munduko Kopa ezin hobeto hasi duzu.

Bai. Bertikala irabazita eta lasterketan zortzigarren eginda, ezin dut gehiagorik eskatu. Gainera, Japonian maila handiko korrikalariak egon dira, nesketan batez

ere, eta hori ikusita, lortutakoak konfiantza eman dit.

Japoniara joan aurretik, espero zenuen horrelako emaitzak lortzea?

Egia esan, ez genuen erreferentzia handirik; bertikalean, batez ere. Bertikalen Sky modalitateko Munduko Kopa lehiatzen dabilen beste emakumezko bat ere bazegoen, japoniarra, bertikaletan espezialista handia eta faborito nagusia. Beste

lehiakideak ez ezagutzera, ez nekien ze postutan egon nintekeen. Lasterketari dagokionez, hamarren barruan sartzea zen hasierako asmoa, baina zer nolako korrikalariak zeuden ikusi nuenean, hamabosten barruan egon nintekeela pentsatu nuen. Azkenean, zortzigarren izan nintzen, helburua ondo beteta. Ze helburu jarri dizkiozu zeure buruari Munduko Koparako?

Helburu nagusia pentsatu dugun egutegia betetzea izango da, lesionatu barik. Eta, posible bada, lasterketa guztietan hamarren barruan sartu eta puntuak batzen joatea, urrian Italian jokatuko den finalean egoteko, handena emateko eta disfrutatzeke.

Mendi lasterketen Munduko Kopak Japonian ekin dio aurtengo denboraldiko ibilbideari, eta bertan izan da Oihana Azkorbebeitia. Abadiña-



GLE Berria. Barne-indarraren adierazpena.

Badago bizitzan urrunera iristeko bide bat. Oztopoz beteriko bide bat. Bihurgune, bira, igoera eta jaitsierak dituen bide bat. GLE Berriari esker egiteko errezagoa den bide bat, zure helmugara zailtasunik gabe heltzen laguntzeko diseinatu eta hornitutako SUV bat.

- MBUX adimen artifiziala duen sistema.
- E-ACTIVE BODY CONTROL esekidura.
- 7 eserleku.
- Errealitate areagotua duen nabigazio-ekipamendua.

Mercedes-Benz



Aguinaga

Mercedes-Benz kontzesionario ofiziala
Boroa Industrialdea, 2. Nabea 3. 48340 ZORNOTZA. Tel.: 94 630 17 47. www.aguinaga.mercedes-benz.es

Snowboarda eta feminismoa uztartzen dituen dokumentalagaz hasiko dute Kirolene Film Fest

Nazioarteko jaialdian hainbat sari irabazi dituen dokumentaleko egilea, Anne-Flore Marxer frantziarra, Durangon izango da



Ezkerrean Aline Bock, eta eskuman Anne-Flore Marxer, Islandiara egindako bidaiako une batean. www.alandshapedbywomen.com

FILM EMANALDIA • JOSEBA DERTEANO
Nazio Batuen Erakundeak 2017an argitaratutako txosten baten arabera, Islandia munduko erreferentia da genero arloko berdintasun politikan. Errealitate haren zergatia jakin guran, Anne-Flore Marxer (Frantzia, 1984) eta Aline Bock (Alemania, 1982) snowboarder profesionalak bertara joan ziren hurrengo urtean. Jakin-minak bultzatuta joan ziren hara euren kirolean berdintasunaren alde luzaroan borrokan ibilitako emakume biak. Jakingura horren ondorioa da *A land shaped by women* dokumentala eta Durangoko San Agustin Kultur Gunean egingo den Kirolene Film Fest jaialdian eskainiko dute, eguaztenean.

Elurretan snowboarda eta uretan surfa praktikatzeko zuten bi-

tartean, legelarien, mugimendu feministetako ordezkarien eta beste hainbat jenderen iritziak batu zituzten. Horiek denak batzen ditu dokumentalak. Lehenengoz aurkeztu zutenetik hona 13 sari irabazi ditu Kalifornia (AEB), Austria, Suitza, Londres (Ingalaterra) eta

Kirolene Film Fest-eko sari banaketara joaten diren denek opari bat jasoko dute

beste hainbat herrialde eta hiritako jaialdian.

Marxer, dokumentaleko zuzendaria, Durangon egongo dela jakinarazi dute antolatzaileek.

Euskal ekoizpenak

Kirolenek, Kirol Irakaskuntzaren Ikastetxe Publikoak, bigarren antolatuko du Kirolene Film Fest. Hiru egunean zehar izango da, eguaztenetik barikura. Lehen eguneko egitarauaren ardatza berdintasuna da, eta eguneko bigarrenarena euskal ekoizpena izango da. Durangaldeko lan bi eskainiko dituzte. Batak, Bideografik ekoiztetxeko Eukeni Arriortuak zuzendutako *Pastoreak* dokumentalak, artzain biren bizimodua erakusten du. Besteak, Atxondoko Iñaki eta Mikel Urresti anaien *Tor* lanak, Silvia Trigueros korrikalariaren balentriak kontatzen ditu.

Jaialdiko ekitaldi nagusia azken egunean egingo dute, barikuan. Naturan kirola egiten dutenen

EGITARAUA

MAIATZAK 1

- 18:30. Ateen irekiera.
- 19:30. Dokumental emanaldia: 'A land shaped by women'

MAIATZAK 2

- 18:30. Ateen irekiera.
- 19:30. Dokumental emanaldia: 'Pastoreak' eta 'Tor'.

MAIATZAK 3

- 18:30. Ateen irekiera. Sarrerak salgai.
- 19:00. Jaialdiaren hasiera: musika eta argazki erakusketa.
- 19:30. Sari banaketa. Saritutako lanen emanaldia.
- 21:30. Kateringua, kafea.

ekoizpen propioak bultzatzeko helburuz, martxoan abiatu zuten film laburren lehiaketako sariak banatuko dituzte. Guztira, 25 bat lan aurkeztu dituzte, profesionalen eta amateurren artean.

Jaialdirako sarrerak Arte eta Historia Museoa eta San Agustin Kultur Gunean eskuratu daitezke. Eguneko sarrerak (lau edo bost euro) zein hiru egunetarako bonuak (10 euro) daude aukeran. Azken eguneko ekitaldira doan bakoitzarentzat opari bat egongo dela aurreratu dute antolatzaileek. Gainera, hainbat sari zozkatuko dituzte.

Jokaldia

Garazi Sampedro Arando
Mendi lasterketak



Krosetik mendira

Mendi lasterketetan ari gare-nok gero eta maila altuagoa dagoela nabari dugu urtetik urtera. Beste batzuekin alderatuz gero kirol gaztea den arren, etengabe hazten ari den seinale da geroz eta zale gehiago erakartzea. Erresistentzia gailentzen den kirola izanik, normala da txirrindularitza-tik, triatloitik edo atletismotik datozen neska-mutilak ondo moldatzea mendian korrika. Azken finean, gihar, lotailu eta giltzadurak lurzoru zein alda-petara ohitzea besterik ez dute egin behar, bihotza esfortzu luzeetara egina baitute kirolari horiek.

Inguruko adibide asko ditut buruan eta batzuk aipatuko ditut: Oihana Kortazarrek makina bat duatloi eginak zituen mendian lehiatzen hasi orduko, Oier Ariznabarreta zein Aritz Egea gaztetxotan txirrindularitzan arituak dira eta Oihana Azkorbebeitia ume-umetatik hasi zen atletismoko probetan lehiatzen. Beste kirol-etatik trailera animatu diren-tatik, azkenaldi honetan txunditu gaituzten pare bat neska aipatu nahi nituzke, zeresana emango baitute mendian segiz gero: triatloian eta atletismoan maila bikaina duen Natalia Gomezek itzelezko markak egin ditu Aia, Cicero eta Costa Quebradako mendi lasterketetan. Ainhoa Sanz atleta, bestalde, Berako mendi maratoi erdian gailendu zen.

Aurten Euskadiko kros txapelketan Majida Mayouf probako irabazlearen atzetik sartu ziren Ainhoa Sanz eta Natalia Gomez, hurrenez hurren. Horra hor krosa eta mendia uztartu daitezkeela bermatzen duten ereduak, ez baita kasualitatea kro-sean Euskadiko onenak direnak mendi lasterketetan ere nabarmentzea.

katerin ardoak
iñaki uribe

25^{unte} Saltsan

Eguneko menuak - Asteburu-tako menu bereziak
Delicatessena - Ardogia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

CERAMICAS
MACOBER

MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER

Chimeneas
Cerámicas
MACOBER

**ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA**

Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

www.inmoduranguesado.com



AUKERA 3 logela
92 m²
Erdigunean. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela terraza handiarekin. Ganbara eta garage handia.
120.000€



IURRETA 2 logela
IURRETA: 2 Logela. Bainugela. Sukaldea jan gelarekin. Terraza. Bizitzera sartzeko prest. Eguzkitsua.
115.000€



DURANGO 3 logela
2 komun
MENDIZABAL: 2 Logela. Bainugela. Sukaldea balkoiarekin. Egongela handia. Ganbara.
186.000€



DURANGO 3 logela
100 m²
SAN IGNACIO: 3 logela armairuekin, 2 bainugela, sukaldea eta egongela terrazarekin. Dena kanpora begira. Eguzkitsua. Alokatzeko erosteko aukerarekin.
256.000€



ZALDIBAR 2 logela
BERRIAK-ESTREINATZEKO: 2 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea eta trastelekua. Garajea aukeran.
143.000€ (BEZ barne)



DURANGO 3 logela
TABIRA: 3 logela, bainugela, sukaldea, despentsa, egongela terrazarekin, ganbara, dena kanpora begira. Eguzkitsua. Ikuspegi politik. Bizitzera sartzeko prest.
190.000€

//ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO. Eraikin berria. Logela biko eta hiruko, azken duplex-ak salgai. 178.000.-€ tik hasita.
DURANGO. Komentukale. Logela biko pisu ederra, sukaldea, egongela, komun bi, oso eguzkitzua, igogailua eta gasa badu
DURANGO. Jose Miel Barandiaran. Pisu ederra, hiru logela, komun bi, sukaldea, egongela, garajea eta trasteroa. Aukera ederra Durango erdian bizitzeko.
MAÑARIA. 3 logelako pisua, komuna, sukaldea, despentsa, egongela, eta ganbara. 80.000.-€. Bizitzeko moduan.
DURANGO. Komentukale. Pisu ederra, hiru logelakoa, komun bat, sukaldea, egongela, eta ganbara. Bista ederrak
BERRIZ. Hiru logelako pisua. komuna eta egongela ganbara ere badu. oso eguzkitzua eta merkea.
DURANGO. Goienkale kalean. Logela biko pisu ederra, 90 m² ganbarekin.
IURRETA. Maspe kalean. Hiru logelako pisu argitua. egongela eta sukaldea balkoiarekin, komuna eta igogailua.
DURANGO. Hegoalde kalean, izugarriko adosatua salgai, 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza, lorategia, ezin hobea.
LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, bainugela, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.
ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, bainugela, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.
ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.

//LURSAILAK SALGAI

ABADIÑO. 1.000 m²-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitzeko baimenarekin. Zonalde egokia.
BERRIZ. 10.000 m²-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.
IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.
ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitzeko lursaila, 1.000 m². Informazio pertsonalizatua.
AMOREBIETA. EUBA. Txalet bifamiliar bat eraikitzeko lursaila, 3.000 m² inguruko azalerarekin.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

BERRIZ. Baseri erdia, 1.000 m² lur sailarekin, sukaldea, terrazarekin, 3 logela, komuna, garajea, trastelekua, etabar. 180.000.-€
ABADIÑO. Bifamiliarra salgai. 4 logela, hiru komun, sukaldea, egongela, garajea oso polita
ATXONDO. Marzana. izugarriko txaleta salgai ikuspegi bikaina, berri berri!!!
MAÑARIA. Izugarriko baseria salgai. Herrian bertan. Lursaila 3.000 m². Bizitzeko moduan. Oso polita.
ELORRIO. Aldape auzoa. Baseria berrizatzeko, 3 hektareako lursaila. Prezioa 125.000.-€
ATXONDO. Baseri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m²-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.
BERRIZ. Bº Murgoitio. Bifamiliar ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 bainugela, garaje bikoitza, 12.000 m²-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.
MENDATA. Lamikiz auzunea. Baseri bifamiliarra berrizatzeko. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.
DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkinakoa, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatzekeo.
BERRIZ. Baseri ederra, Murgoitioko zonaldean. Hiru hektareako landa baseri ondoan

//BULEGOAK ALOKAIRUAN

ABADIÑO. 40 m²-tik gorako bulegoak, 350 €-tik hasita.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000.-€ tik aurrera

//LOKALAK ALOKAIRUAN

Alde zaharrea, tamaina ezberdineko lokalak alokagai ditugu. Etorri eta galdetu.


//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA. 460 m²-ko lokala salgai, bulegoa, komuna eta aldagela, oso egokia

www.inmoduranguesado.com



ABADIÑO 4 solairu
215 m²
ABADIÑO: ADOSATUA 215 m² lau solairutan banatuta. Distribuzio eta orientazio ona.
459.000€



DURANGO 3 logela
2 komun
106 m²
SAN IGNACIO: 106 m². 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainu gela 25 m² terraza ederra. Garajea itxita.
249.000€



ABADIÑO 160 m²
ABADIÑO- LOKALA Edozein aktibitate hasteko prest. Erakusleho ederra. Bainu gela. 4m-ko gela, telefono eta telebista toma, aire girotua, alarma...
215.000€



DURANGO 4 logela
110 m²
SASIKOA: 4 gela, egongela, sukaldea. 2 bainu gela eta 2 balkoi. Gas naturaleko berogailua, igogailua, garajea eta ganbara.
195.000€



DURANGO 4 logela
100 m²
DURANGO: Goien 100 m². 4 logela, egongela, sukaldea eta bainu gela. Gas naturaleko berogailua, garage plaza (aukeran).
180.000€



ATXONDO 3 logela
90 m²
ATXONDO: AUKERA!! 3 logela, bainu gela 1, egongela, sukaldea jarrita, 12 m² ko despentsa. Altzariz hornituta, ganbara eta garajea.
147.000€

//DURANGO

ASKATASUN ETORBIDEA 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. **180.000€** / E.E.Z=F
ANTSO ESTEGIZ 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. **160.000€** / E.E.Z=E
ERRENTXU 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. **190.000€** / E.E.Z=E. Garaje itxia aukeran
EZKURDI 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela eta igogailua. LEHEN 321.500€ / **ORAIN 300.000 €** / E.E.Z=F
KALEBARRIA 2 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta komuna. **82.000€** / E.E.Z=G
KURUTZIAGA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. **99.000€** / E.E.Z=Bidean
MIKELDI 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, igogailua, garajea eta ganbara. LEHEN 270.000€ / **ORAIN 256.000 €** / E.E.Z= E
SASIKOA KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia igogailua, garajea eta trastelekua. **210.000€** / E.E.Z=E
ZEHARKALE 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. LEHEN 150.000 € / **ORAIN 130.000 €** / E.E.Z= E
ZUMALAKARREGI 5 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 4 bainugela, igogailua eta garajea. **695.000 €** / E.E.Z= E

//ABADIÑO

ARLOZABAL 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **170.000 €** / E.E.Z=Bidean
ZELETABE 3 logela, egongela, sukaldea, 3 bainugela, terraza, garajea eta trastelekua. LEHEN 342.576 € / **ORAIN 288.000€/E.E.Z=E**

//ATXONDO

ARRAZOLA ERREPIDEA 2 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **170.000€** / E.E.E=Bidean

//BERRIZ

BERRIZBEITIA KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 €** / E.E.Z= F
BILBO ETORBIDEA 3 logela, sukaldea, egongela-jangela, 3 komun eta balkoia LEHEN 195.000€ / **ORAIN 180.000€** / E.E.E= E
ERROTATXO KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. LEHEN 95.000€ / **ORAIN 85.000€** / E.E.Z=E

//IURRETA

AMILBURU MUSIKARIEN PLAZA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, terraza, igogailua ganbara eta garajea. **276.000€** / E.E.Z= E
FAUSTE Baseria lurzoruagaz, **220.000€** / E.E.Z=G

SANTA MAÑA 3 logela, sukaldea, egongela bainugela trastelekua eta lursailarekin **125.000€/E.E.Z=G**

//MATIENA

TXINURRISOLO 3 logela, sukaldea egongela balkoiagaz eta bainugela **200.000€** / E.E.Z=F

//MAÑARIA

EBARISTO BUSTINTZA KIRIKIÑO 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, 2 balkoi, 2 ganbara. eta txokoa **150.000€** / E.E.E=Bidean. Txokoa aukeran

//ZALDIBAR

ZALDUARAN KALEA Banakako etxebizitza. 373m² inguru hiru solairutan banatuta. 3 logela, egongela, sukaldea, 3 bainugela, garajea eta txokoa. 669m² inguruko lur sailarekin. **460.000€** / E.E.Z=E

//ZORNOTZA

SAN PEDRO KALEA 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz, bainugela, ganbara eta garajea. **170.000€** / E.E.Z=Bidean

Osasun gida

anboto

Ginekologia
PSE: 93/18

mām ginekologia zentroa

Mikeldi 13, 48200 - DURANGO
T 946 05 53 04
info@mamginekologiadurango.com
www.mamginekologiadurango.com

HITZORDUA ESKATU
674 322 360

Fisioterapia
PSE: 119/13

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

Fisioterapia
PSE: 57/16

pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

Fisioterapia
PSE: 155/17

HOBETU
Fisioterapia & Podología

info@hobetu.es
T/ 946 582 444

K/ Buzkantz kalea, 2
P.K./ 48230 Elorrio
www.hobetu.es

Podologia
PSE: 148/13

PAUSOZ PAUSO
Podologia klinika

Goiatz Murua
kol. zbk. 147
Ainhoa Elorza
kol. zbk. 238
Nerea Rodriguez
kol. zbk. 329

Kiropodia, onkopatia, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Telefona: 946203630
Monago Torre 4, behea 48200 durango

Odontologia
PSE: 145/13

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{Muruetatorre, 2C blokea, behea}
DURANGO
Tel.: 946 819 951
Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

Odontologia
PSE: 112/13

J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200

Estetika
PSE: 16/09

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticadurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak... Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

Psikologia
PSE: 62/11

JON ARRUBARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psicologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

Optometria
PSE: 162/13

keinu optometria zentroa

Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Optometrian teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.
- Orto-k.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

www.keinuoptometriazentroa.com

Pedagogia
PSE: 63/63

UGATZ

UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA
Laguntza goiztiarra, psikomotritzitatea, fisioterapia, logopedia

Juan Olazarán, 1 behea
DURANGO
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090



Profesionalik onenak zure zerbitzura!



Botikak

BARIKUA, 26 - 09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 27 - 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

DE DIEGO Intxaurren 22. - **DURANGO**

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

UNAMUNZAGA Muretatorre 2C - **DURANGO**

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

JAIO-ABENDIBAR Errekakale 6. - **ELORRIO**

EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

DOMEKA, 28 - 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurren 22. - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA, 29 - 09:00-09:00

ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**

RUIZ, JUAN EL ALTO-Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 30 - 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - **DURANGO**

RUIZ, JUAN EL ALTO-Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 1 - 09:00-09:00

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

RUIZ, JUAN EL ALTO-Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 2 - 09:00-09:00

BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

RUIZ, JUAN EL ALTO-Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENKO 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozaturango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Inhar (758. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.



Zorionak, **Aimar**, zure seigarren urtebetetzeari. Zorionak danon partez eta batez be Anerren partez. Oso ondo pasau, txapelun.




Zorionak, **Leire!** Gure Marimotots txikiak 4 urte bete zituen apirilaren 24an. Jarraitu ezazu borrokalaria eta alaia izaten. Muxu asko!



Pasa dan astelehenean, **Peru** Urizarrek 4 urte bete zituen. Zorionak danon partez eta ondo pasa!



Gaur **Inge** Narbaiza Aldekoa berriztarrak 7 urte egiten dauz. Zorionak etxeko politari familiaren partez.



Apirilaren 19an gure **Amaia**ren urteguna izan zen. Musu potolo bat lurretatik.



27 mosu potolo gure azukera koskortxuei! Portu desberdinetan dekozuzen amante guztixek zutaz oroitzen gara. Zorionak, **Jonito!** Pailazoa zara ondik pitxonxito. Laster, ordie, agure kontortsionistie... hasi urretx makilie zuzentzen.



Apirilaren 23an gure **Jontxuren** urteguna izan zen. Zorionak eta 18 musu potolo. Jarratitu berdin. Guapo-guapo!



Zorionak, **Ziortza!** Ondo-ondo ospatu egune eta Matixenako jaietan traguek zure kontu.



Zorionak, **Itsaso!** Ondo-ondo ospatu egune eta gabaz Gozategigaz batera egingo doguz dantza batzuk.

DURANGALDEKO ALBISTEAK JASOTZEKO BIDE BERRIAK

f Anboto Komunikabideak
@anboto
@anbotokomunikabideak

Whatsapp bidez
Bidali 'ALTA' 688 635 041 zenbakira whatsapp bidezko mezua bidalita

Telegram bidez
Bilatzailearen bidez 'ANBOTO' kontua topatu eta jarraitzen hasi



“Kafe mingotsera ohitu gara, baina zapore gozoa edo garratza duena da ona”

Kalitateko kafeagaz edariak prestatzen eta zerbitzatzen dituzten adituen trebakuntzan lan egiten du Sergio Gomezek; kafearen zentzumen epailea eta epaile teknikoa ere bada

Sergio Gomez Jimenez (Zornotza, 1979) • Barista

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Egunean zortzi kafe hartzen ditu, batez beste, Sergio Gomezek. Bere berbetan, kafearen onurak gehiago dira kalteak baino. Cafes El Abra enpresan lan egiten du, trebatzaile moduan, eta kafearen lehen epaile izateko homologazioa lortu gura du aurten; baita jatorrizko kafeari puntuak emateko formakuntza ere. Kafearen munduan erreferentzia den 'El Ristretto' (Kolonbia) aldizkarian eredu lez hartu dutela-eta, harrituta eta eskertuta dago. Bide honetan guztian lagun izan duen Jose Vicente Llagunoren laguntza nabarmendu du.

Zein da kafe ona ateratzeko sekretua?

Hiru aldagai daude: lehengaiak, kafe-makina eta bakoitzaren eskua. Jarrera eta lan intrusismorik ez egotea ere ezinbestekoak dira. Ikasi egin behar da garagardoa edo kafea ateratzen. Kafe-makinagaz dabil-tzan gehienek ez dute nahita txarto egiten, hala ikasi dutelako baino. Ez dute izan nork erakutsi.

Horretan lanean zabilta.

Bai, kafea nola atera behar den erakusten nabil. 15 ostalariri kafe luze bat nola atera behar den galdetuta, bakoitzak era bat azalduko digu. Baina era bakarra dago ateratzeko. Kontua da ez dela erakutsi. Jendeak ondo ateratako kafe on bat hartzea dut helburu.

Kafea neurritz hartzea gomendatzen dute. Ez da zure kasua.

Kafea munduko antioxidatzaile natural nagusienetakoa da. Ona da bihotzerako, gibelerako, alzheimer-rra dutenentzat... Onurak gehiago ditu kalteak baino. Baina kafe ona izan behar da.

Eta zein da hori?

Beste kafetegiekiko errespetutik, esango dut %100 arabikoak erabiltzen dituzten tokietara jo behar dela. Bi bider kafeina gutxiago dute. Kafe mingotsera ohitu gara, baina zapore gozoa edo garratza duena da ona.

Estimaten dugu kafe ona?

Zenbat eta gazteago, orduan eta kafe gehiago kontsumitze-ko joera

dago, kafe hobea gainera. Aukerak asko zabaldu dira. Organikoa, konpostagarriak... daude modan.

Hartutako kafearen isla gara?

Neurri batean, bai. Adibidez, kafe luzea edo amerikarra hartzen duenari, kafeaz gozatzea gustatzen zaio; ur asko dutenak aromatikoa garratza

gozoagoak.

Denboragaz hartzekoak.

Espresoa edo

Ristrettoa

garratza

tzagoa da, indartsuagoa. Bakoitzak gustatzen zaion erara hartu behar du kafea. Ondo jarri diezagutela lortu behar da.

Nola gustatzen zaizu zuri?

Era guztietara. Zale amorratua naiz. Plazerra dut lanbide.

2017an Euskadiko Barista Lehiaketa irabazi zenuen. Buelatu zara lehiara?

Munduko txapelketara aurkeztu ez izanaren arantza dut, epaile lez lasaia ibili arren.

Jatorrizko kaferik gustukoena?

Etiopia edo Kenyako; kafearen bihotza dago han. Baina Kolonbiakoa, Honduraskoa edo Guatemalako ere gustuko ditut. Laboraria ondo egiten saiatu den toki horretakoa.

Berba bitan

Kafea bakarrik ala...

Konpainian

Nogaz hartuko zenuke kafe bat?

Emazteagaz

Momentu bat kafea hartzeko?

Nagusiagaz, zerbaitetan hari-rra jo behar dugunean.

Bidaia bat?

Edozein "leku kafeterora", emazteagaz

Liburu bat?

'¡Al Grano!' edo 'Elcafetario'

Lau hortza

Ainhoa Olaso Sopelana Ikaslea



Fikzio bat

“Egun on, haizetsu esnatu da Euskal Herria”, ostirale- ro legez, astelehenak edo astearteak ere berdintsuak dira zinez. Zortzietan jo du irrati iratzargailuak. Aste honetako egun guztietan itzali dut erlojua egun onak eman eta jarraian, baina gaur nire alboan itzartu denak titularrak entzun nahi izan ditu.

Talde bortxaketari erantzuna, amiantoaz hildako langileen zifra potoloa eta bezperako eztabaida telebisatua deskribatuz eman dio hasiera egunari euskarazko irrati kate publikoak. Ur txorrota izoztua izan da kolkotik behera.

Zabaldu gabeko gutun azalak ditut zukua egiteko laranjen ondoan. Igandean bozkatzera joan ahal izateko nire boto-txartela ekar zezaketen, edo oporretan egon den nagusiaren postala. Bandera gisako sobreak ez dakar mendi puntan ateratako argazkia, eta ez da nire botoa. Honekin sagar bat ere ez nuke batuko, hobe birziklatzen badut.

Bada beste gutun azal bat. Hau, kontrara, eskuz idatzita datorrena. Tinta urdin ilun batekin esku hartuta dagoela abisatzen du, "intervenido". Zaragozatik dator, "Centro Penitenciario". Aspaldi ikusi ez dudana lagunarena da, eta harro nago modu makur batean.

"Eskoziak 2021a baino lehen deitu nahi du bigarren erreferendumera." Irratia itzali du lagunak. "Lanera joan beharra dut", nik ere bai. Musua masailan eta, "maite zaitut". Badi- rra hain denbora tarte laburrean errepikatu ezin diren esaldiak.



Bodegas *Launa*
Arabar Errioxa

info@bodegaslauna.com / Tel.: 946 824 108
www.bodegaslauna.com

2017
PEÑIN GIDA
93 puntu

Gidako Errioxako
kriantzarik onena

